

IRUNGO UDAL PROGRAMA ETA BALIABIDEETAN  
SEXUAREN ARABERA BEREIZITAKO PARTE  
HARTZEAREN AZTERKETA



PAREAN ELKARTEA 2021

**PAREAN**  
E l k a r t e a



# AURKIBIDEA

0.-SARRERA.....	5
SEXUAREN ALDAGAIA, LEGEZKO ESKAKIZUNA.....	6
IRUN, BI HAMARKADA BERDINTASUN-POLITIKAK GARATZEN.....	6
ADIERAZLE TRADIZIONALETATIK GENERO-ADIERAZLEETARA.....	7
EKITATEAREN ERAIKUNTZA.....	8
AZTERKETAREN NONDIK NORAKOAK.....	8
AZTERTU BEHARREKO UDAL-BALIABIDE ETA PROGRAMEN HAUTAKETA, UDAL- ORGANIGRAMAKO ARLOEN ARABERA.....	9
1.- METODOLOGIA.....	13
KRONOGRAMA.....	13
2.- DATUEN AZTERKETA.....	15
2.1.- GIZARTE-ONGIZATE, HEZKUNTZA ETA GAZTERIA ARLOA.....	15
GIZARTE-ONGIZATE DEPARTAMENTUA.....	15
ADINEKO PERTSONENTZAKO ZERBITZUA.....	15
GARAPENERAKO LANKIDETZA, GIZA ESKUBIDEAK, BALIOAK ETA BERDINTASUNA...	43
ESKU-HARTZE KOMUNITARIOA.....	48
LEHEN MAILAKO ARRETA.....	57
HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA.....	59
GAZTERIA DEPARTAMENTUA.....	72
2.2.- KULTURA ETA KIROL ARLOA.....	80
KULTURA DEPARTAMENTUA.....	80
KIROL DEPARTAMENTUA.....	92
2.3.- INFORMAZIOAREN GIZARTEA, HERRITARREN PARTE HARTZEA ETA AUZOEN ARLOA.	109
PARTE-HARTZEA ETA GARDENTASUNA.....	115
2.4.- EUSKARA ARLOA.....	119
2.5.- UDALTZAINGOA ETA BIZIKIDETZA ARLOA.....	127
TRAFIKOA ETA HERRITARREN BIZIKIDETZA.....	127
BIDE-HEZKUNTZA.....	129
2.6.- HIRI BULTZADA, EKONOMIA ETA OGASUN ARLOA.....	133
GARAPEN EKONOMIKOA.....	133
3.- ONDORIOAK.....	141
4.- PROPOSAMENAK.....	155
4.1.- PROPOSAMEN OROKORRAK.....	156
4.2.- PROPOSAMENAK ARLOKA ETA UDAL-PROGRAMEN ARABERA.....	157
4.2.1.- GIZARTE ONGIZATEA, HEZKUNTZA ETA GAZTERIA ARLOA.....	157
GIZARTE ONGIZATEA.....	157
GAZTERIA.....	160
HEZKUNTZA.....	160
4.2.2.- KULTURA ETA KIROLA.....	161
KULTURA.....	161
KIROLA.....	161
4.2.3.- INFORMAZIOAREN GIZARTEA, HERRITARREN PARTE-HARTZE ETA AUZOETARAKO ARLOA.....	162
4.2.4.- EUSKARA.....	163
4.2.5.- UDALTZAINGOA ETA BIZIKIDETZA ARLOA.....	164
4.2.6.- HIRI-BULTZADA, EKONOMIA ETA OGASUN ARLOA.....	165
4.3.- HOBEKUNTZA PROPOSAMENEN LABURPENA.....	166
PROPOSAMEN OROKORRAK.....	166
ARLO, DEPARTAMENTU, ZERBITZU ETA UDAL PROGRAMEN ARABERAKO PROPOSAMENAK.....	167



## 0.-SARRERA

Desagregazio terminoaren esanahia lotuta zeuden elementuak bereiztearen ekintza eta emaitza da. Datuak bereizteak, edozein direla ere, aztertu beharreko egoeraren azterketa zehatzagoa egiten laguntzen du. Aztertutako biztanleriaren berezitasunak hobeto ulertzeko aukera ematen dute, eta, informazio xeheago horren bidez, ikusteko zailak diren arazoak antzematen dira. Bereizitako datuek, beraz, ereduak ematen dituzte eta beharrak identifikatzen laguntzen dute.

Aldagai asko har daitezke kontuan datuak bereizterakoan; hala ere, azterlan honetan datuak sexuaren arabera bereiztearen garrantzian jarriko dugu arreta. Ariketa hau ezinbestekoa da, genero-ikuspegia duten politika publikoak lantzeko lehen urratsa baita.

Politika publiko guztietan ikuskera hau txertatzeko beharra, genero-mainstreaminga edo genero-zeharlerrotasuna deiturikoa, printzipio gisa ezarri zen Nazio Batuek 1995ean Beijingen egindako Emakumeari buruzko Laugarren Mundu Konferentzian.

Genero-ikuspegia kontuan hartu behar da jarduera guztietan, edozein dela ere haren aplikazio-eremua edo edukia, eta prozesu osoan zehar, bai diseinuan, inplementazioan eta bilakaeran ere. Horrela bakarrik hartzen dira kontuan emakumeen eta gizonen benetako egoerak eta premiak.

Gogoratu behar da politika publikoen aplikazioa ez dela inoiz neutrala; izan ere, horiek guztiak pertsonekin zuzenean edo zeharka lotutako jarduerak dira, eta horiek guztiek eragin positiboa edo negatiboa izango dute emakumeen eta gizonen errealitatean.

Horregatik, ezinbestekoa da Administrazioak edozein politika publiko diseinatzeko, ezartzeko eta aplikatzeko eragin nahi duen egoera ondo ezagutzea eta diagnostiko egokia egitea. Aurretiazko urrats hori da, errealitatea ezagutze hori, Administrazioaren jardunaren eraginkortasuna eta efizientzia zehaztuko dituen.

Errealitatearen ezagutza horretara hurbiltzeko eta, era berean, genero-zeharlerrotasunaren printzipioa aplikatzeko, ezinbestekoa da alde zuzeneko baldintza bat betetzea: estatistikak, azterlanak eta datuak sexuaren arabera bereizita edukitzea. Horretarako, sexuaren arabera banakatutako informazio eta datuek emakumeek eta gizonen beren bizitzako alderdi guztietan duten egoeraren berri eman behar dute.

Lan horretarako, Administrazioak datuak biltzeko eta gizarte-errealitatea aztertzeko erabiltzen dituen galdetegiak, datu-baseak, informatika-aplikazioak, azterlanak eta gainerako tresnak berrikusi behar dira alde zuzeneko. Halaber, kasu gehienetan, aplikazio, formulario eta datu-base horiek moldatu egin behar dira, sexuaren eremua zeharka islatzeko, eta beste zenbait datu ere sartzeko, besteak beste, adina, bizilekua eta abar. Azken finean, adierazle berriak definitzeak, politika publikoaren eta jardun nahi den eremuaren arabera egokituak, aztertu nahi den gizarte-errealitatea hobeto aztertzea ahalbidetuko du.

Azkenik, aipatu behar da azterlan hau Irungo Udalaren IV. Berdintasun Planaren 18. ekintzaren arabera egin dela (2017-2021).

## SEXUAREN ALDAGAIA, LEGEZKO ESKAKIZUNA

Otsailaren 18ko **4/2005 Legeak**, Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legeak, 16. artikuluan ezartzen duenez, euskal herri-aginteeek beren ohiko jardueran genero-ikuspegia modu eraginkorrean integratzen dela bermatze aldera, beren azterlan, inkesta, datu-bilketa eta estatistikak egiterakoan, sexuaren aldagaia sistematikoki sartu behar dutela dio.

Lege horrek berak estatistika-eragiketetan adierazle berriak ezarri eta sartu behar direla jasotzen du ere. Emakumeen eta gizonen balio, rol, egoera, baldintza, jomuga eta beharrezkoak diren adierazleak eta mekanismoak diseinatu eta sartu behar dira, beste aldagai batzuen eragina ezagutu ahal izateko; izan ere, aldagai horiek egoteak askotariko diskriminazio-egoerak eragiten ditu esku hartu beharreko eremu guztietan.

Legeak, halaber, lagin zabalak egitearen alde egiten du, sartutako aldagaiak sexuaren aldagaiaren arabera aztertu ahal izateko. Era berean, eskura dituzten datuak ustiatzean, esku hartzeko eremu guztietan emakumeek eta gizonak dituzten egoera, baldintza, jomuga eta beharrezkoak diren adierazleak ezagutu ahal izango dira.

Azken atalean, legeak jasotzen du garrantzitsua dela dauden definizio estatistikoak berrikustea eta, hala badagokio, egokitzea, emakumeen lana aintzat hartu eta baloratzen laguntzeko eta emakume-kolektibo jakin batzuen estereotipazio negatiboa saihesteko.

Xedapen horiek berak jaso ziren ondoren Espainiako Estatuko **3/2007 Lege Organikoan**, martxoaren 22koan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriko legean, 20. artikuluan.

## IRUN, BI HAMARKADA BERDINTASUN-POLITIKAK GARATZEN

Irungo udalerriri dagokionez, Irunek bi hamarkada daramatza berdintasun-politikak garatzen, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak desagerrarazteko. Laburbilduz, ibilbide hori berdintasun-planek dakartzaten mugarrien inguruan egituratu daiteke:

- Irungo emakumeentzako ekintza positiboko plana, 2001-2005
- Irungo Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana, 2008-2011
- Irungo Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana, 2013-2016
- Irungo Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana, 2017-2021

Berdintasunaren arloko lehen udal-plangintzaren ondoren, 2001ean, egoeraren diagnostiko bat egin zen, eta hori izan zen II. Berdintasun Planaren abiapuntua. II. Plan hura testuinguru juridiko berri batean hasi zen, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 28ko 4/2005 Legea eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa onartzearen ondorio zuzen gisa. Gainera, 2006an sartu zen indarrean EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana.

III. Berdintasun Plana aurrerapauso bat izan zen udalerrian garatutako berdintasun-politiketan. Genero-mainstreamingerako egiturak sortu eta finkatu ziren, estrategiaren garapenari eta hura ezartzea ahalbidetzen duten jardueren gauzatzeari eusteko. Egitura horiek Berdintasun Batzordea eta Berdintasunerako Sail arteko

Batzordea dira. 2016an kontratatu zen lehen aldiz berdintasunari buruzko prestakuntza zuen berdintasun-teknikari bat, Udaleko LPZn jasota dagoena.

IV. Planaren helburu orokorra udal-kudeaketan genero-ikuspegia txertatzea da, eta, bestetik, Irungo emakumeen eskubide- eta aukera-berdintasuna bermatzea. Azken plan hori honako lau jarduera-ardatz hauetan egituratzen da: Berdintasunerako gobernantza, emakumeen ahalduntzea eta balio-aldaketa, antolaketa sozial erantzunkidea eta indarkeria matxista desagerrarazteko borroka.

Berdintasunerako Gobernantzaren esparruan, bereziki azpimarratzen da sexuaren arabera bereizitako datuak biltzea eta aztertzearen garrantzia. Aurreko berdintasun-planek ere eskatzen zuten eta Irungo Udalak 2014an argitaratutako Gobernantzarako Gidan barne hartzen bazen ere, datuen sexuen arabera banaketa oraindik ez zegoen garai hartan Udala osatzen duten sail guztien eguneroko lanean sistematizatuta .

Hau izan zen Irungo azken berdintasun-planak sexuaren arabera bereizitako datuen biltzearen inguruan egiten zuten balantzea:

*«Datuak sexuaren arabera bereizketa egitea eta hauen ondorengo azterketa ez daude sistematizatuta sailen eguneroko lanean, eta, ondorioz, ez dago emakumeen eta gizonen errealitate bereizgarriari buruzko azterketa diagnostikorik udal-arlo eta -zerbitzuei lotutako eremuetan. Horrek zaildu egiten du neurri eta ekintza zehatzak ezartzea. Hala ere, arlo batzuetan hasiak dira datuak sexuaren arabera bereizten: Hala nola, Gizarte Ongizatea, Hezkuntza eta Gazteria, eta Kultura eta Kirola.*

*Adierazi denez, Udalean garatutako izapidetze eta kudeaketa-prozesu guztiak Hirugarrenen Udal Basearekin lotuta daude, sexua barne hartzen duena. Beraz, IRUN TXARTELAren bidez, partaidetza-prozesu oro Hirugarrenen Udal Oinarriari lotuta dagoenez, informazioa sexuaren arabera bereizita dago».*

Gaur egun, diagnostiko hura egin eta bost urtera, norabide onean urratsak eman direla ikus dezakegu, eta Udaleko arlo gehienek datuak sexuaren arabera bereizten dituztela ondorioztatu dezakegu. Hala eta guztiz ere, bide horretan urratsak ematen jarraitu behar da, eta estatistiketan sexuaren aldagaiak sartzeaz harago, Administrazioak datuak biltzeko eta errealitate soziala aztertzeko erabiltzen dituen galdetegiak, datu-baseak, aplikazioak, azterlanak eta gainerako tresnak berrikusi beharko ziren.

## **ADIERAZLE TRADIZIONALETATIK GENERO-ADIERAZLEETARA**

Tradizionalki erabilitako adierazleak sexuen arabera bereiztea beharrezkoa da, baina askotan ez da nahikoa informazioa lortzeko eta genero-ikuspegitik aztertzeko. Adierazle tradizional horiek, ondorioetan ikusiko dugunez, gehienetan ez dute informazio garrantzitsurik ematen genero-ikuspegitik. Alde batetik, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun-egoerak identifikatzeko balio ez dutelako, edo emakumeen eta gizonen errealitatearen ezaugarriak zehazteko orduan estereotipoak sartzen dituztelako eta emakumeek tradizionalki bete izan dituzten funtzioak eta jarduerak gutxiesten baitituzte maiz.

Adierazle tradizional horiek, baliagarriak ez izateaz gain, oztopo handiak dira bi sexuen errealitateari buruzko informazioa sortu eta interpretatzerako orduan.

Administrazioak egiten dituen estatistiketan, inkestetan eta datu-bilketan sexuaren aldagaia sistematikoki sartzeaz gain, genero-rolaren ondorioz sexuen arteko desberdintasunaren alderdiak nola eboluzionatzen duten ikusteko aukera ematen duten Genero Adierazleak barne hartzen dituzten estatistiken agertoki baterantz jo behar dugu.

## EKITATEAREN ERAIKUNTZA

Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunen aitortzatik baino ez da ulertzen, eta horrek ekintza praktikoak eskatzen ditu. Bizitzako beste esparru batzuetan gertatzen den bezala, hala nola Historian edo Zientzian, estatistikak eta azterlanak emakumeen eta gizonen artean dauden desberdintasunak kontuan hartu gabe diseinatu dira. Duela urte batzuk arte, emakumeak ikusezin egon dira azterlanaren luparen aurrean; informazioa partzialki eskuratu da, eta herritar guztientzat baliozko eta adierazgarri gisa orokortu da.

Estatistiketan genero-ikuspegia aplikatzea ezinbesteko tresna da politika publikoak berdintasunerantz bideratzeko, oinarritzko genero-desberdintasunak eta -diskriminazioak ikusarazteko aukera ematen baitute.

Izendatzen ez dena ez da existitzen. Beraz, emakumearen egoerari buruzko begirada estatistiko honetatik abiatuta, ondorengo adierazi genezake, «Neurtzen ez dena, ezin da hobetu».

## AZTERKETAREN NONDIK NORAKOAK

Azterlan honen helburua udal-programa eta -baliabideen erabileran sexuaren aldagaia aztertzea izango da. Sexua terminoak gizonen eta emakumeen arteko desberdintasun biologikoei egiten die erreferentzia. Baina desberdintasun horrek ez ditu sexu bakoitzaren portaerak zehazten. Genero terminoak desberdintasun biologiko horren inguruan sozialki eraikitako rolak aipatzen ditu. Genero-ikuspegia bere osotasunean aplikatzeak berekin ekarriko luke gizartean eta kulturen eraikitako genero-rolak eta -estereotipoak kontuan hartzea ere. Hala ere, lehen azterlan honen helburua da emakumeek udal baliabide eta programetan duten parte-hartzeari buruzko ezagutzara hurbiltzea, eta, beraz, sexuaren aldagaia baino ez du kontuan hartuko.

Gaur egun, herritarrek bi lauki baino ez dituzte aurkitzen Irungo Udaletik zuzendutako inprimaki eta izapide gehienetan, eta gizonen eta emakumeen binomioari erantzuten diote laukitxo horiek.

Berdintasun-eskubidea eta sexu-orientazio, identitate eta genero-adierazpenengatik eremu publikoan diskriminaziorik ez gauzatzeko, hirugarren lauki bat sartzeko erabakia abian da administrazio batzuetan, beren burua emakume edo gizon gisa definitzen ez duten pertsonentzat. Neurri horren bidez, LGTBI+ kolektiboa ikusarazi nahi da, eta haren diskriminazioa saihestu. Aukera horri esker, trans edo bitar ez diren pertsonak beren nortasuna erabili ahal izango dute administrazioarekin egin beharreko izapideetan.

Udalaren programa eta baliabideetako parte-hartzearen azterketa 2019ko udal-jardueran oinarritu da. Azterlana 2021eko ekainean hasi arren, Covid-19ak 2020ko martxotik gaur egunera arte eragindako pandemiaren egoerak eragina izan die herritarren egunerokoan, eta are gehiago parte hartzean. Hori dela eta, 2019. urtea aukeratu da aztertzeko.

Metodologiaren hurrengo atalean adierazi dugun bezala, azterlan honetarako interesgarriak diren zerbitzu bakoitzaren programak eta udal-baliabideak Udaleko Berdintasun Zerbitzuarekin adostu ziren. Ondorengo koadroan udal organigramaren barruan aukeratutako programak eta baliabideak jasotzen dira.



# AZTERTU BEHARREKO UDAL-BALIABIDE ETA PROGRAMEN HAUTAKETA, UDAL-ORGANIGRAMAKO ARLOEN ARABERA

Jarraian, aztertutako udal-baliabideak eta programak zehaztuko ditugu. Ikus daitekeenez, Irungo Udalaren organigrama osatzen duten udal-arloen arabera antolatu ditugu baliabideak eta programak.

Hemen aipatutako arloez gain, beste bi arlo daude udal-organigramaren barruan: Hirigintza eta Garapen Iraunkorreko Saila eta Mugikortasuneko, Bide Publikoetako eta Obretako Arloa. Bi arlo horiek azterketatik kanpo utzi dira, horien izaera dela-eta ez direlako programez osatzen eta, egiturari dagokionez, ez dituztelako nahitaez herritar guztiei zuzendutako baliabideak eta zerbitzuak eskaintzen. Gainera, aztertutako arloen barruan, ez dira aztertu programa edo baliabide guztiak, arrazoi beragatik, eta lan honetan aztergai direnak ondoren zehazten direnak dira.

Azkenik, aipatu behar da, sexuen desagregazioaren arabera aztertu beharreko udal-programak eta -baliabideak aukeratzekoan, hasierako zerrenda programa eta baliabide gehiagoz osatuta zegoela, baina batzuk ez dira zerrendatzen hurrengo tauletan, ez baita datu bereizirik lortu. Hala ere, ondorioetan, azterketa honetan bildutako datuen kalitatea zehaztuko dugu, eta datu bereizirik lortu ez duten programak ere zerrendatuko ditugu.

Irungo Udaleko arloetako sailtako eta/edo zerbitzuetako arduradunek lortu dituzte datuak.

GIZARTE ONGIZATEA, HEZKUNTZA ETA GAZTERIA ARLOA		
DEPARTAMENTUAK	ZERBITZUAK	PROGRAMA ETA BALIABIDEAK
GIZARTE ONGIZATEA	ADINEKO PERTSONAK	JARDUERAK
		GIZARTE-ESPAZIOAK
		JARDUERAK GIZARTE-ESPAZIOETAN
		ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA
		EGOITZA-ETXEBIZITZAK
		LEKAENEA APARTAMENTUAK
		BESTE ERAKUNDE BATZUEKIN LANKIDETZA PROIEKTUAK
	GARAPENERAKO LANKIDETZA, GIZA ESKUBIDEAK, BALIOAK ETA BERDINTASUNA	BERDINTASUNA
		TOLERANTZIA
	ESKU-HARTZE KOMUNITARIOA	ADIKZIOEN PREBENTZIOA
		HAURRAK ETA FAMILIA
		GIZARTERATZEAREN SUSTAPENA-ZUBIA
		KULTUR-ANIZTASUNA ETA INTEGRAZIOA
	LEHEN MAILAKO ARRETA	LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA
		LAGUNTZEN ESKAERA
HEZKUNTZA		UDAL HAUR ESKOLA

		KONTSERBATORIOA ETA MUSIKA ESKOLA
GAZTERIA		JARDUERAK
		GAZTELEKUA
		HAURTXOKOA
		UDALEKUAK ETA ELKAR-TRUKEAK
		ASEXORA-T

### KULTURA ETA KIROL ARLOA

DEPARTAMENTUAK	ZERBITZUAK	PROGRAMA ETA BALIABIDEAK
KULTURA		CBA UDAL LIBURUTEGIA
		OIASO MUSEOA
		MARRAZKETA ETA PINTURA AKADEMIA
		ZERAMIKA TAILERRA
		MENCHU GAL MUSEOA
		IRUN FACTORY
KIROLA		ESKOLA KIROLA
		KIROLDEGIAK

### INFORMAZIOAREN GIZARTE, HERRITARREN PARTE-HARTZE ETA AUZOETARAKO ARLOA

DEPARTAMENTUAK	ZERBITZUAK	PROGRAMA ETA BALIABIDEAK
	HIRITARREN ARRETA	UDAL ARTXIBOA (Informazio Korporatiboko Zerbitzua)
		HIRITARREN ARRETA ZERBITZUA (HAZ)
		KONTSUMO BULEGOA (KIUB)
	PARTE-HARTZEA ETA GARDENTASUNA	PARTE-HARTZE PROZESUAK
		AURREKONTU PARTE-HARTZAILEAK
		OHARRAK, KEXAK ETA IRADOKIZUNAK
		AUZO ELKARTEAK

### EUSKARA ARLOA

DEPARTAMENTUAK	ZERBITZUAK	PROGRAMA ETA BALIABIDEAK
		UDAL EUSKALTEGIA
	NORMALKUNTZA	SOLAS JOLAS
		EUSKARA BAIETZ!!!
		J.A. LOIDI IKERKETA BEKA
		EUSKARA IKASTEKO BEKAK
		GU ERE BERTSOTAN
		EUSKARA ESKOLAK IKASLEEN

		GURASOENTZAT
--	--	--------------

<b>UDALZAINGOA ETA BIZIKIDETZA ARLOA</b>		
<b>DEPARTAMENTUAK</b>	<b>ZERBITZUAK</b>	<b>PROGRAMA ETA BALIABIDEAK</b>
TRAFIKOA ETA HERRITAR BIZIKIDETZA		SALAKETAK
BIDE HEZKUNTZA		BEHAR BEREZIKO PERTSONAK
		MENDIBIL PRESTAKUNTZA ZENTROKO PERTSONAK
		ADINEKO PERTSONAK
		ERDITZE PRESTAKUNTZARAKO TALDEAK

<b>HIRI-BULTZADA, EKONOMIA ETA OGASUNA ARLOA</b>		
<b>DEPARTAMENTUAK</b>	<b>ZERBITZUAK</b>	<b>PROGRAMA ETA BALIABIDEAK</b>
SUSTAPEN EKONOMIKOA		MERKATARITZA ADMINISTRAZIO OROKORRA
		IRUN EKINTZAN



# 1.- METODOLOGIA

Azterlan hau garatzeko metodologia hau erabili da:

- Udal-organigramaren azterketa, arloz arlo.
  - Irungo Udalaren barne-antolaketaren azterketa
- Udalaren programen eta baliabideen azterketa
  - Arlo bakoitzeko urteko memoriak eta aurrekontuak aztertu dira, sail bakoitzeko udal-programak eta -baliabideak islatzeko.
- Azterketarako udal-programak eta -baliabideak aukeratzea
  - Irungo Udaleko Berdintasun zerbitzuarekin interesgarriak diren arloak, programak eta baliabideak adostu dira.
- Azterketarako datuak lortzea
  - Berdintasun Zerbitzuak bilera bat deitu zuen arlo bakoitzeko zuzendaritzekin, azterlanaren berri eman eta laguntza eskatzeko. Bilera ekainaren erdialdean izan zen, osoko bilkuraren aretoan.
  - Datuak lortzeko lanean zerbitzuetako arduradunekin harremana izan dugu, telefono-deien eta e-mailen bidez.
- Datuak antolatzea eta aztertzea
- Ondorio kualitatiboak
- Egoera hobetzeko lan-ildoak proposamena

## KRONOGRAMA

	EKAINA	UZTAILA	ABUZTUA	IRAILA	AZAROA	ABENDUA	URTARRILA
1.ORGANIGRAMAREN AZTERKETA							
2.PROGRAMA ETA BALIABIDEEN AZTERKETA							
3. AZTERKETARAKO PROGRAMA ETA BALIABIDEAK ZEHAZTEA							
4. DATU BILKETA							
5.DATUEN ANTOLAKUNTZA ETA AZTERKETA							
6.ONDORIO KUALITATIBOAK							
7. HOBETZE LAN-ILDOAK							



## 2.- DATUEN AZTERKETA

### 2.1.- GIZARTE-ONGIZATE, HEZKUNTZA ETA GAZTERIA ARLOA

#### GIZARTE-ONGIZATE DEPARTAMENTUA

Gizarte Ongizate Saitetik hiru atal nagusitan aztertu ditugu datuak: Adinekoen Zerbitzuei, Esku-hartze Komunitarioari eta Lehen Mailako Arretari dagozkienak, bai eta Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzuari, Giza Baliabideen, Balioen eta Berdintasunaren Zerbitzuari dagozkion Berdintasun Unitatea eta Tolerantzia Programa ere.

Multzo horien barruan, hainbat programetako datuak aztertu ditugu: Adinekoen Zerbitzuaren barruan, jarduera soziokulturalak, adinekoentzako espazio sozialak, etxez etxeko zerbitzua eta bizitegi-etxebizitzak, Lekaeneako apartamentu babestuen zerbitzua eta beste erakunde batzuekin lankidetzan egindako proiektuak aztertu ditugu.

Esku-hartze Komunitarioko Zerbitzuaren barruan, honako programa hauen datuak aztertu ditugu: adikzioen prebentzioa, Haurrak eta Familia, Gizarteratzearen Sustapena, Zubia eta, azkenik, Kultura Aniztasunaren eta Integrazioaren programa.

Eta amaitzeko, Lehen Mailako Arreta Zerbitzuaren barruan honako hauek aztertu ditugu: arreta psikologikoa eta laguntza ekonomikoen eskaerak.







### ADINEKO PERTSONENTZAKO ZERBITZUA

#### 2.1.1.- JARDUERA SOZIO-KULTURALAK

##### > JARDUERAK

Jarraian, jardueren araberako parte-hartzaileen datuak aurkeztuko ditugu:






JARUERA BEREZIAK	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA	GRAFIKOA
> Adineko pertsonen eguna: "Irun eta bere auzoen Historia ezagutzen".	18	4	22	 <p>EMAK. 81,8% GIZ. 18,2%</p>

> Ate ireki jardunaldia	250	57	307	 <p>EMAK. 81,4% GIZ. 18,6%</p>
> Adineko pertsonen astea	119	23	142	 <p>EMAK. 83,8% GIZ. 16,2%</p>
> OSPAKIZUNAK (ihauteriak, festak,....)	467	138	605	 <p>EMAK. 77,2% GIZ. 22,8%</p>
> IKUSKIZUNAK (kontzertuak, dantza, antzerkia..)	364	94	458	 <p>EMAK. 79,4% GIZ. 20,6%</p>
> HITZALDIAK/ TERTULIAK/IRTEERAK	655	118	773	 <p>EMAK. 84,7% GIZ. 15,3%</p>
<b>GUZTIRA</b>	<b>1873</b>	<b>434</b>	<b>2307</b>	 <p>EMAK. 81,2% GIZ. 18,8%</p>

Grafikoan ikus daitekeenez, adineko pertsonen zuzendutako jardueretan emakumeek parte hartzen dute gehienbat; zehazki, % 88,2 emakumeak izan ziren.



## 2.1.2.- ADINEKO PERTSONENTZAKO UDAL GIZARTE-ESPASIOAK

UDAL GIZARTE-ESPASIOAK	EMAKUMEAK (%)	GIZONAK(%)	GUZTIRA(%)	GRAFIKOA
<b>SAN MIGUEL</b> > Eguneko batz besteko asistentzia: 21 pertsona	85	15	100	
<b>PALMERA MONTERO</b> > Eguneko batz besteko asistentzia: 43 pertsona	55	45	100	
<b>BEHOBIA</b> > Eguneko batz besteko asistentzia: 12,5 pertsona	84	16	100	
<b>ANAKA-PUIANA</b> > Eguneko batz besteko asistentzia: 18,7 pertsona	83	17	100	
<b>BELASKOENEA</b> > Eguneko batz besteko asistentzia: 11 pertsona > Ez dago genero edo adin daturik				
<b>GUZTIRA</b>	<b>307</b>	<b>93</b>	<b>400</b>	

Adinekoentzako gizarte-espazioetara egunero batez beste joaten direnei buruzko datuak aztertu ondoren, ondorioztatu da partaidetza handiena emakumeena dela, zehazki, % 76,7koa.

Ikus daitekeenez, parte-hartzeari buruzko datu bereziak dituzten zentro guztietako asistentzia batik bat emakumezkoena da. Auzoz auzo, San Migelen egunero hurbiltzen diren pertsonen % 85 emakumeak dira eta %

15 gizonak. Behobiako gizarte-eremura egunero hurbiltzen diren pertsonen % 84 emakumeak dira eta % 16 gizonak. Anaka-Puianako gizarte-eremuan, berriz, % 83 emakumeak dira eta % 17 gizonak.

Palmera Monteroren zentroan eguneroko parte-hartzea parekoagoa da, egunero gerturatzen diren pertsonen % 55 emakumeak baitira eta % 45 gizonak.

Belaskoenea zentroari dagokionez, datuak ez daude sexuaren arabera berezita.

### 2.1.3. JARDUERAK ADINEKO PERTSONENTZAKO UDAL GIZARTE-ESPASIOETAN






#### > JARDUERA IRAUNKORRAK (Parte-hartzaileen eguneko batuz bestekoa)

Jarraian, datuak eman dizkiguten adinekoentzako lau zentroek (San Miguel, Palmera Montero, Behobia eta Anaka Puiana) eskainitako jarduera egonkorretan izandako parte-hartzea ikus dezakegu.







Zentro guztietan eskainitako jarduera egonkorretan parte hartze datuei dagokionez, partaidetza nagusiki emakumeena da, emakumeak % 80tik gora dira, eta kasuren batean % 89ra iristen dira.




S. MIGUEL				
JARDUERA IRAUNKORRAK	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA	GRAFIKOA
Memoria	20	2	22	<p>EMAK. 90% GIZ. 10%</p>
Informatika	1	1	2	<p>EMAK. 50% GIZ. 50%</p>
Cineforum	18	2	20	<p>EMAK. 90% GIZ. 10%</p>
Bingo	5	1	6	<p>EMAK. 83,3% GIZ. 16,7%</p>
Euskara	3	1	4	<p>EMAK. 75% GIZ. 25%</p>
<b>GUZTIRA</b>	<b>47</b>	<b>7</b>	<b>54</b>	<p>EMAK. 87% GIZ. 13%</p>

Grafikoetan ikus daitekeenez, San Miguel Zentroan zuzendutako jardueretan emakumeek parte hartzen dute gehienbat; 54 parte-hartzailetik 47 emakumeak dira, % 87.

PALMERA MONTERO				
JARDUERA IRAUNKORRAK	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA	GRAFIKOA
Memoria	14	0	14	 <p>EMAK. 100% GIZ. 0%</p>
Informatika	4	0	4	 <p>EMAK. 100% GIZ. 0%</p>
Cineforum	23	12	35	 <p>EMAK. 65,7% GIZ. 34,3%</p>
Bingo	16	3	19	 <p>EMAK. 84,2% GIZ. 15,8%</p>
Esku-lanak	6	0	6	 <p>EMAK. 100% GIZ. 0%</p>
<b>GUZTIRA</b>	<b>63</b>	<b>15</b>	<b>78</b>	 <p>EMAK. 80,8% GIZ. 19,2%</p>







Grafikoetan ikus daitekeenez, Palmera Monteroko Zentroan zuzendutako jardueretan emakumeek parte hartzen dute gehienbat, 78 parte-hartzailetik 63 emakumeak dira, %80,8 .



BEHOBIA				
JARDUERA IRAUNKORRAK	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA	GRAFIKOA
<b>Memoria</b>	18	3	21	 <p>EMAK. 85,7% GIZ. 14,3%</p>
<b>Burmuin gimnasia</b>	14	3	17	 <p>EMAK. 82,3% GIZ. 17,7%</p>
<b>Informatika</b>	4	5	9	 <p>EMAK. 44,4% GIZ. 55,6%</p>
<b>Cineforum</b>	13	2	15	 <p>EMAK. 86,6% GIZ. 13,4%</p>
<b>Eskulanak</b>	11	0	11	 <p>EMAK. 100% GIZ. 0%</p>
<b>Lineako dantza</b>	9	0	9	 <p>EMAK. 100% GIZ. 0%</p>

<b>Sexualitate tailerra</b>	14	2	16	 <p>EMAK. 87,5% GIZ. 12,5%</p>
<b>Antzerkia</b>	5	2	7	 <p>EMAK. 71,4% GIZ. 28,6%</p>
<b>GUZTIRA</b>	<b>88</b>	<b>17</b>	<b>105</b>	 <p>EMAK. 83,8% GIZ. 16,2%</p>

Behobiako Zentroan zuzendutako jardueretan emakumeek parte hartzen dute gehienbat, 105 parte-hartzailetik 88 emakumeak dira; % 83,8.

ANAKA-PUIANA

JARDUERA IRAUNKORRAK	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA	GRAFIKOA
<b>Memoria</b>	20	4	24	 <p>EMAK. 83,3% GIZ. 16,7%</p>
<b>Informatika</b>	6	1	7	 <p>EMAK. 85,7% GIZ. 14,3%</p>
<b>Cineforum</b>	9	0	9	 <p>EMAK. 100% GIZ. 0%</p>
<b>Eskulanak</b>	7	0	7	 <p>EMAK. 100% GIZ. 0%</p>
<b>Dantza/karaoke</b>	9	2	11	 <p>EMAK. 81,8% GIZ. 18,1%</p>
<b>Bingo</b>	24	6	30	 <p>EMAK. 80% GIZ. 20%</p>

<b>Abestxoko</b>	8	2	10	 <p>EMAK. 80% GIZ. 20%</p>
<b>GUZTIRA</b>	<b>83</b>	<b>15</b>	<b>98</b>	 <p>EMAK. 84,7% GIZ. 15,3%</p>

Grafikoetan ikus daitekeenez, Anaka-Puianako Zentroan zuzendutako jardueretan emakumeek parte hartzen dute gehienbat, 98 parte-hartzaitik 83 emakumeak dira, % 84,7.



## > JARDUERA BEREZIAK, PUNTUALAK

Jarraian, datuak eman dizkiguten 4 zentroek eskainitako jarduera berezi edo puntualetan izandako parte-hartzea ikus dezakegu. Partaidetza nagusiki emakumeena da, emakumeak % 80tik gora dira, eta kasuren batean % 89ra iristen dira.

S. MIGUEL				
JARDUERA BEREZIAK	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA	GRAFIKOA
<b>Ate irekien jardunaldia</b>	45	3	48	<p>EMAK. 93,7% GIZ. 6,3%</p>
<b>Adineko pertsonen eguna</b>	29	3	32	<p>EMAK. 90,6% GIZ. 9,4%</p>
<b>OSPAKIZUNAK: Urteurrena , Inauteriak, S. Tomas</b>	68	12	80	<p>EMAK. 85% GIZ. 15%</p>
<b>IKUSKIZUNAK: Dantza orientalak, sevillanak, euskaldantza</b>	77	11	88	<p>EMAK. 87,5% GIZ. 12,5%</p>
<b>HITZALDIAK: Afagi, Nagusilan, Lehen sorospenak, Bide Heziketa</b>	83	10	93	<p>EMAK. 89,2% GIZ. 10,8%</p>
<b>TERTULIAK</b>	43	1	44	<p>EMAK. 97,7% GIZ. 2,3%</p>

<b>ERAKUSKETAK/ IRTEERA KULTURALAK</b>	15	2	17	<p>EMAK. 88,2% GIZ. 11,8%</p>
<b>GUZTIRA</b>	<b>360</b>	<b>42</b>	<b>402</b>	<p>EMAK. 89,6% GIZ. 10,4%</p>

Grafikoetan ikus daitekeenez, San Migel Zentroko jarduera berezietan emakumeek parte hartzen dute gehienbat; 402 parte-hartzailetik 360 emakumeak dira, % 89,5.




<b>PALMERA MONTERO</b>				
<b>JARDUERA BEREZIAK</b>	<b>EMAKUMEAK</b>	<b>GIZONAK</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>GRAFIKOA</b>
<b>Ate irekien jardunaldia</b>	62	9	71	<p>EMAK. 87,3% GIZ. 12,7%</p>
<b>Adineko pertsonen eguna (belaunaldi- artekoa)</b>	9	6	15	<p>EMAK. 60% GIZ. 40%</p>
<b>Belaunaldi-arteko tailerra "El refranero"</b>	12	0	12	<p>EMAK. 100% GIZ. 0%</p>
<b>OSPAKIZUNAK: Urteurrena, auzoko jaiak, martxoak 8 , Erregeak, S. Markos, S. Tomas, karta torneoa</b>	133	58	191	<p>EMAK. 69,6% GIZ. 30,4%</p>

<b>IKUSKIZUNAK:Bole roak</b>	49	19	68	<p>EMAK. 72% GIZ. 28%</p>
<b>HITZALDI-TAILERRAK: Nola aurre egin doluari, Frontera dokumentala, Nagusilan, Lehen sorospenak, Acubi, Emakumea, Sexualitate mitoak</b>	147	51	198	<p>EMAK. 74,2% GIZ. 25,8%</p>
<b>TERTULIAK</b>	17	6	23	<p>EMAK. 73,9% GIZ. 26,1%</p>
<b>ERAKUSKETAK/IRTEERA KULTURALAK</b>	21	1	22	<p>EMAK. 95,4% GIZ. 4,6%</p>
<b>GUZTIRA</b>	<b>450</b>	<b>150</b>	<b>600</b>	<p>EMAK. 75% GIZ. 25%</p>




Grafikoetan ikus daitekeenez, Palmera Monteroren Zentroko jarduera berezietan emakumeek parte hartzen dute gehienbat, 600 parte-hartzailetik 450 emakumeak dira, % 75.




BEHOBIA

JARDUERA BEREZIAK	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA	GRAFIKOA
Ate irekien jardunaldia	92	38	130	<p>EMAK. 70,7% GIZ. 29,3%</p>
Adineko pertsonen eguna	28	4	32	<p>EMAK. 87,5% GIZ. 12,5%</p>
OSPAKIZUNAK: Urteurrena, Iñauteriak, martxoak8, S Tomas, Urtezaharra, Erregeak, Partxis txapelketa	93	19	112	<p>EMAK. 83% GIZ. 17%</p>
IKUSKIZUNAK: Nagusilan koroa, Bidasoaldeakoak, Manuel Aguilar kontzertua, Uxo antzerkia, Behobia talde antzerkia, erdi aroko feria	140	46	186	<p>EMAK. 75,3% GIZ. 24,7%</p>
HITZALDIAK /TAILERRAK: Envejecer Bonito, el yoga y sus beneficios, Nagusilan, Lehen sorospenak, lapurreta prebentzia, Frontera dokumentala	102	14	116	<p>EMAK. 87,9% GIZ. 12,1%</p>

<b>TERTULIAK</b>	19	3	22	 <p>EMAK. 86,3% GIZ. 13,7%</p>
<b>ERAKUSKETAK/ IRTEERA KULTURALAK</b>	47	10	57	 <p>EMAK. 82,4% GIZ. 17,6%</p>
<b>GUZTIRA</b>	<b>521</b>	<b>134</b>	<b>655</b>	 <p>EMAK. 79,5% GIZ. 20,5%</p>

Grafikoetan ikus daitekeenez, Behobiako Zentroko jarduera berezietan emakumeek parte hartzen dute gehienbat, 655 parte-hartzailetik 521 emakumeak dira, % 79,5.

<b>ANAKA-PUIANA</b>				
<b>JARDUERA BEREZIAK</b>	<b>EMAKUMEA</b>	<b>GIZONAK</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>GRAFIKOA</b>
<b>Ate irekien jardunaldia</b>	51	7	58	 <p>EMAK. 87,9% GIZ. 12,1%</p>
<b>Adineko pertsonen eguna</b>	53	10	63	 <p>EMAK. 84,1% GIZ. 15,9%</p>
<b>OSPAKIZUNAK: S. Markos, S. Marcial, martxoak 8, S. Tomas, tortila leihaketa, karta txapelketa</b>	173	49	222	 <p>EMAK. 77,9% GIZ. 22,1%</p>






<b>IKUSKIZUNAK:</b> Kontzertuak, Boleroak, Chemi Checa, Gabon katak/ Behobia antzerkia	98	18	116	 <p>EMAK. 84,5% GIZ. 15,5%</p>
<b>HITZALDIAK:</b> Acubi, Elikadura eta fisioterapia, Anaka auzoaren sorrera, Lehen Sorospinak, Bide Heziketa	149	20	169	 <p>EMAK. 88,2% GIZ. 11,8%</p>
<b>GUZTIRA</b>	<b>524</b>	<b>104</b>	<b>628</b>	 <p>EMAK. 83,4% GIZ. 16,6%</p>



Grafikoetan ikus daitekeenez, Anaka-Puianako Zentroko jarduera berezietan emakumeek parte hartzen dute gehienbat, 628 parte-hartzailetik 524 emakumeak dira, % 83,4.

## 2.1.3.- GIZARTE-ONGIZATEAREN ARLOAK ANTOLATUTAKO JARDUERAK GIZARTE-ESPAZIOETAN

Jarraian, gizarte-ongizateko arloak oporraldietan deialdi berezi batekin eskaintzen dituen jarduera berezien datuak azaltzen dira.

### > UDAN GOGOZ







ARTEA (UZTAILA)				
GIZARTE-ESPAZIOA	EMAKUMEA	GIZONAK	GUZTIRA	GRAFIKOA
LEKAENEA	10	4	14	 <p>EMAK. 71,4% GIZ. 28,6%</p>
S. MIGUEL	9	1	10	 <p>EMAK. 90% GIZ. 10%</p>
PALMERA MONTERO	4	0	4	 <p>EMAK. 100% GIZ. 0%</p>
BEHOBIA	13	2	15	 <p>EMAK. 86,6% GIZ. 13,4%</p>
ANAKA	11	2	13	 <p>EMAK. 84,6% GIZ. 15,4%</p>

<b>BELASKOENEA</b>	10	0	10	 <p>EMAK. 100% GIZ. 0%</p>
<b>GUZTIRA</b>	57	9	66	 <p>EMAK. 86,4% GIZ. 13,6%</p>

Emakumeak gehiengoa izan dira jarduera hauetan parte hartzen ere; 66 parte-hartzailetatik 57 emakumeak izan ziren, hau da, % 86,3.



> ANTZERKI ADIERAZPENA

ANTZERKI ADIERAZPENA (abuztua)				
GIZARTE- ESPAZIOA	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA	GRAFIKOA
LEKAENEA	10	3	13	 <p>EMAK. 76,9% GIZ. 23,1%</p>
S. MIGUEL	9	1	10	 <p>EMAK. 90% GIZ. 10%</p>
PALMERA MONTERO	6	1	7	 <p>EMAK. 85,7% GIZ. 14,3%</p>
BEHOBIA	9	2	11	 <p>EMAK. 81,8% GIZ. 18,2%</p>
ANAKA	8	0	8	 <p>EMAK. 100% GIZ. 0%</p>
<b>GUZTIRA</b>	<b>42</b>	<b>7</b>	<b>49</b>	 <p>EMAK. 85,7% GIZ. 14,3%</p>







Emakumeak gehiengoa dira jarduera horretan parte hartzen, 49 parte-hartzailetik 57 emakumeak izan ziren, hau da, % 86.

> YOGA

YOGA (uztaila-abuztua)				
GIZARTE- ESPAZIOA	EMAKUMEA	GIZONAK	GUZTIRA	GRAFIKOA
LEKAENEA	7	4	11	<p>EMAK. 63,6% GIZ. 36,4%</p>
S. MIGUEL	11	1	12	<p>EMAK. 91,6% GIZ. 8,4%</p>
PALMERA MONTERO	8	1	9	<p>EMAK. 88,8% GIZ. 11,2%</p>
BEHOBIA	14	2	16	<p>EMAK. 87,5% GIZ. 12,5%</p>
ANAKA	9	0	9	<p>EMAK. 100% GIZ. 0%</p>
<b>GUZTIRA</b>	<b>49</b>	<b>8</b>	<b>57</b>	<p>EMAK. 86% GIZ. 14%</p>

Emakumeak gehiengoa dira jarduera hauetan parte hartzen ere; 57 parte-hartzailetatik 49 emakumeak izan ziren, hau da, % 86.

> GABONETAN GOGOZ

GABONETAN GOGOZ				
GIZARTE-ESPAZIOA	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA	GRAFIKOA
LEKAENEA	18	4	22	 <p>EMAK. 81,8% GIZ. 18,2%</p>
S. MIGUEL	17	2	19	 <p>EMAK. 89,5% GIZ. 10,5%</p>
PALMERA MONTERO	20	17	37	 <p>EMAK. 54% GIZ. 46%</p>
BEHOBIA	13	5	18	 <p>EMAK. 72,2% GIZ. 27,8%</p>
ANAKA	13	4	17	 <p>EMAK. 76,5% GIZ. 23,5%</p>
<b>GUZTIRA</b>	<b>81</b>	<b>32</b>	<b>113</b>	 <p>EMAK. 71,7% GIZ. 28,3%</p>



Emakumeak gehiengoa dira jarduera hauetan parte hartzen ere; 113 parte-hartzailetatik 81 emakumeak eta neskak izan ziren, hau da, % 72.

## 2.1.4.- ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA




ELZREN ERABILERA EGOERAREN ARABERA				
	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA	GRAFIKOA
MENDEKOTASU NA DUTEN PERTSONAK	103	38	141	<p>EMAK. 73% GIZ. 27%</p>
PERTSONA AUTONOMOAK	86	28	114	<p>EMAK. 75,4% GIZ. 24,6%</p>
<b>GUZTIRA</b>	<b>189</b>	<b>66</b>	<b>255</b>	<p>EMAK. 74,1% GIZ. 25,9%</p>

Grafikoetan ikus daitekeenez, mendekotasuna duten pertsonentzako etxez etxe laguntzan eta autonomoentzako laguntzan emakumeak dira nagusi. 255 erabiltzailetatik 189 emakumeak dira, eta gizonak 66; % 74,1 emakumeak eta % 25,9 gizonak.

GENEROAREN ARABERAKO ZERBITZUAREN ARRETA BAKOITZEKO ERABILERA				
	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA	GRAFIKOA
ARRETA DOMESTIKOA	87	21	108	<p>EMAK. 80,5% GIZ. 19,5%</p>
ARRETA PERTSONALA	45	24	69	<p>EMAK. 65,2% GIZ. 34,8%</p>

<b>BIAK</b>	56	22	78	 <p>EMAK. 71,8% GIZ. 28,2%</p>
<b>GUZTIRA</b>	188	67	255	 <p>EMAK. 73,7% GIZ. 26,3%</p>

### > ETXEZ ETXEKO OTORDU ZERBITZUA


ETXEZ ETXEKO OTORDU ZERBITZUA				
	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA	GRAFIKOA
<b>MENDEKOTASUNA PERTSONAK</b>	34	22	56	 <p>EMAK. 71,8% GIZ. 28,2%</p>
<b>PERTSONA AUTONOMOAK EDO BALORAZIORIK GABEAK</b>	42	38	80	 <p>EMAK. 71,8% GIZ. 28,2%</p>
<b>GUZTIRA</b>	76	60	136	 <p>EMAK. 55,9% GIZ. 44,1%</p>

Artatutako pertsonen hileko batez bestekoa 136 izan da. Ikus daitekeenez, gizonen eta emakumeen arteko aldea txikiagoa da zerbitzu horretan. Onuradunen % 55,9 emakumeak dira.

## > FARMAZIA PROGRAMA


Etkez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren erabiltzaileei doan ematen zaien programa hau sendagaien banaketarako sistema bat da, aukeratutako farmaziak prestatua, dosi eta denbora egokietan hartzen laguntzeko, eta Gipuzkoako Farmazialarien Elkargoarekin lankidetzan egiten da. Zerbitzu honetan ere erabiltzaile gehienak emakumeak dira, gizonak bikoiztuz.

Zehazki, 33 pertsonatik 22 emakumeak dira eta 11 gizonak, hau da, % 66,6.

FARMAZIA PROGRAMA			
EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA	GRAFIKOA
22	11	33	 <p>EMAK. 66,7% GIZ. 33,3%</p>


## 2.1.5.- EGOITZA-ETXEBIZITZAK

### > EGOITZA-ETXEBIZITZAK

EGOITZA-ETXEBIZITZAK			
EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA	GRAFIKOA
3	6	9	 <p>EMAK. 33,3% GIZ. 66,7%</p>

Ekipamendu horietan 9 pertsona artatu dira: 3 emakume ( % 33) eta 6 gizon ( % 67).

### > ADINEKOENTZAKO ISOLAMENDU SOZIALA ETA NARRIADURA KOGNITIBOA PREBENITZEKO PROGRAMA

PREBENTZIO PROGRAMA			
EMAKUMEAK(%)	GIZONAK(%)	GUZTIRA(%)	GRAFIKOA
78,5	21,5	100	 <p>EMAK. 78,5% GIZ. 21,5%</p>

Kontaktatutako 305 adinekoetatik 93 elkarrizketatuak izan ziren, % 78,5 emakumeak eta % 21,5 gizonak.

## 2.1.6.- LEKAENEA APARTAMENTUAK





LEKAENEA APARTAMENTUAK			
EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA	GRAFIKOA
2	3	5	<p>EMAK. 40% GIZ. 60%</p>

Urtean 5 pertsona artatu dira ekipamendu horietan: 2 emakume ( % 40) eta 3 gizon ( % 60).

JARDUERA IRAUNKORRAK (Eguneko bataz besteko parte- hartaileak)	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA	GRAFIKOA
<b>Mahai-jokoak</b>	7	2	9	<p>EMAK. 77,7% GIZ. 22,3%</p>
<b>Boloak</b>	3	1	4	<p>EMAK. 75% GIZ. 25%</p>
<b>Bingo</b>	8	2	10	<p>EMAK. 80% GIZ. 20%</p>
<b>Gimnasia terapeutikoa</b>	13	2	15	<p>EMAK. 86,6% GIZ. 13,4%</p>
<b>GUZTIRA</b>	<b>31</b>	<b>7</b>	<b>38</b>	<p>EMAK. 81,6% GIZ. 18,4%</p>






Egindako jarduera egonkorretan, 38 parte-hartzaileetatik 31 emakumeak izan ziren, hau da, % 81.

JARDUERA BEREZIAK (Pertsona parte-hartzaileak guztira)	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA	GRAFIKOA
Adineko pertsonen eguna	29	6	35	 <p>EMAK. 82,8% GIZ. 17,2%</p>
IKUSKIZUNAK: Kontzertuak, Nagusilan koroa, Boleroak, J. Ignacio y Roberto, Kontserbatorioko bibolin ikasleak, Gabon kantak, Uxo antzerkia, Sevillanak Caramelo taldea	142	30	172	 <p>EMAK. 82,5% GIZ. 17,5%</p>
HITZALDIAK: Acubi, Lehen sorospenak	29	8	37	 <p>EMAK. 78,4% GIZ. 21,6%</p>
<b>GUZTIRA</b>	<b>200</b>	<b>44</b>	<b>244</b>	 <p>EMAK. 82% GIZ. 18%</p>


Egindako jarduera berezietan, 244 parte-hartzaileetatik 200 emakumeak izan ziren, hau da, % 82.

## 2.1.7.- GIZARTE-ONGIZATEAREN ARLOAK BESTE ERAKUNDE BATZUEKIN LANKIDETZAN PARTE HARTZEN DUEN PROIEKTUAK

### > GIPIZKOAKO FORU ALDUNDIA/ MATIA FUNDAZIOA

SENDIAN PROGRAMA				
	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA	GRAFIKOA
BANAKAKO ARRETA	32	14	46	 <p>EMAK. 69,6% GIZ. 30,4%</p>
TALDE ARRETA	4	2	6	 <p>EMAK. 66,7% GIZ. 33,3%</p>
GUZTIRA	36	16	52	 <p>EMAK. 69,2% GIZ. 30,8%</p>

Ikus daitekeenez, artatutako 52 pertsonetatik gehienak, 36, emakumeak dira, hau da, % 69,2.

FIZPE JASOTZEN DUTEN ZAINZAILEENTZAKO PRESTAKUNTZA				
EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA	GRAFIKOA	
108	45	153	 <p>EMAK. 70,6% GIZ. 29,4%</p>	

Prestakuntza jaso duten pertsona gehienak emakumeak dira, hartzaileen % 70.

# GARAPENERAKO LANKIDETZA, GIZA ESKUBIDEAK, BALIOAK ETA BERDINTASUNA

## 2.1.8.- BERDINTASUNA

PROGRAMA	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA	GRAFIKOA
AHALDUNTZE ESKOLA	199	0	199	<p>EMAK. 100% GIZ. 0%</p>
AUTOESTIMA TAILERRA	29	0	29	<p>EMAK. 100% GIZ. 0%</p>
8M ETA 25N SENTSIBILIZAZIOA	247	244	491	<p>EMAK. 50% GIZ. 50%</p>
IRUN BELDUR BARIK saria*	12	14	26	<p>EMAK. 46% GIZ. 54%</p>
BELDUR BARIK TAILERRA*	585	615	1200	<p>EMAK. 49% GIZ. 51%</p>
IKUSKIZUNA	225	175	400	<p>EMAK. 56% GIZ. 44%</p>

<b>FESTETAKO KANPAINA</b>	471	127	598	<p>EMAK. 79% GIZ. 21%</p>
<b>EMAKUMEEN APORTAZIOA HISTORIAN</b>	22	0	22	<p>EMAK. 100% GIZ. 0%</p>
<b>ERANTZUNKIDETASUNA</b>	7 adin txikikoak	15 adin txikikoak	22	<p>EMAK. 32% GIZ. 68%</p>
<b>GUZTIRA</b>	<b>1790</b>	<b>1175</b>	<b>2987</b>	<p>EMAK. 60,2% GIZ. 39,8%</p>

ADINAREN ARABERAKO PARTE-HARTZEA						
PROGRAMA	ADINA				GUZTIRA	GRAFIKOA
	< 18	18-35	36-60	> 60		
<b>AHALDUNTZE ESKOLA</b>	47	22	87	43	199	
<b>AUTOESTIMA TAILERRA</b>	0	2	18	9	29	

ADINAREN ARABERAKO PARTE-HARTZEA

PROGRAMA	ADINA				GUZTIR A	GRAFIKOA
	< 18	18-35	36-60	> 60		
8M ETA 25N SENTSIBILIZAZIOA	210	70	101	110	491	
IRUN BELDUR BARIK saria*	26	0	0	0	26	
BELDUR BARIK TAILERRA*	1200	0	0	0	1200	
IKUSKIZUNA	50	40	250	60	400	
FESTETAKO KANPAINA	238	239	121	0	598	
EMAKUMEEN APORTAZIOA HISTORIAN	0	4	12	6	22	
ERANTZUNKIDETA SUNA	13	0	6	3	22	

**Ahalduntze-eskolako** partaidetza emakumeek osatzen dute oso-osorik, eta horietatik gehienak 36 eta 60 urte bitarteko adin-tartean daude.

Berdintasun Zerbitzuak eskaintzen duen **autoestimutailerrean** emakumeek hartu dute parte, eta horietatik gehienak 36 eta 60 urte bitartekoak dira; 60 urtetik gorako emakumeen parte-hartzea ere nabarmena da.

Berdintasun Zerbitzuak eskaintako **sentsibilizazio-kanpainetan** parte hartzea nahiko orekatua da; parte hartu duten 491 pertsonetatik ia % 50 emakumeak izan ziren. Horietatik gehienak 18 urtetik beherakoak dira, eta, ondoren, 60 urtetik gorakoak.

Beldur Barik ekimenari dagokionez, nahiko parte-hartze orekatua dago ere: Beldur Barik sarian parte hartu duten pertsonen % 46 emakumeak dira, eta Beldur Barik tailerretan, berriz, parte-hartzaileen % 49.




Beldur Barik prestakuntza-programa eskoletan aurrez ezarritako taldeei eskaintzen zaie, eta gazteen parte-hartzea ez da berez sortzen. Faktore horrek eragina izango du ondorioak ateratzeko orduan. Bestalde, Beldur Barik ikuskizuna institutuetan aldeztu aurretik ezarritako talde horien partaidetzatik haratago doa, eta bertan emakumeen parte-hartzea handitu egiten da eta adin-tarteak aldatu egiten dira; gehienak 36 eta 60 urte bitartekoak izanik.



Jaien inguruan eskaintako **sentsibilizazio-kanpainetan** emakumeak dira gehien parte hartu dutenak; ia % 80 emakumeak izan ziren. Horietatik gehienak 18 urtetik beherakoak dira, eta, ondoren, 18 eta 35 urte bitartekoak.

**Emakumeak historian egin duen ekarpenari buruzko sentsibilizazio-jardueran**, Berdintasun Zerbitzuak eskaintakoan, partaidetza osoa emakumeek osatu dute. Horietatik gehienak 36 eta 60 urte bitartekoak dira, eta, ondoren, 60 urtetik gorakoak.

**Erantzukidetasun-jarduera**, Berdintasun Zerbitzuak eskainia, aitei bakarrik zuzenduta zegoen, eta, beraz, bertan parte hartu duten helduak gizonetzkoak dira.

## 2.1.9.- TOLERANTZIA







PROGRAMA	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA	GRAFIKOA
GAZTEEN OSOKO BILKURA	128	126	254	 <ul style="list-style-type: none"> <li>■ NESKAK 50%</li> <li>■ MUTILAK 50%</li> </ul>
ORBEL HAIZEA	422	375	797	 <ul style="list-style-type: none"> <li>■ EMAK. 53%</li> <li>■ GIZ. 47%</li> </ul>
GUZTIRA	550	501	1051	 <ul style="list-style-type: none"> <li>■ EMAK. 52,3%</li> <li>■ GIZ. 47,7%</li> </ul>

ADINAREN ARABERAKO PARTE-HARTZEA						
PROGRAMA	ADINA				GUZTIRA	GRAFIKOA
	< 18	18-35	36-60	> 60		
GAZTEEN OSOKO BILKURA	240	0	14	0	254	
ORBEL HAIZEA	759	4	34	0	797	

Gazteen Osoko Bilkuraren eta Orbel Haizea proiektuaren datuei dagokienez, alde aurretik ezarritako taldeei eskaintzen zaizkien programak direla zehaztu behar da, eta horietan parte hartzea ez dela berez sortzen, eta ez dietela genero-rolari erantzuten. Datu horiek baliagarriak dira parte hartu duten pertsonen ehunekoa jakiteko, baina ez dira eraginkorrak genero-ikuspegitik aztertzeko orduan.

# ESKU-HARTZE KOMUNITARIOA

## 2.1.10.- ADIKZIOEN PREBENTZIOA

PROGRAMA	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA	GRAFIKOA
LAGUNEKIN BARATZEAN	506	534	1040	 <ul style="list-style-type: none"> <li>■ EMAK. 49%</li> <li>■ GIZ. 51%</li> </ul>
MIMARTE	15	27	42	 <ul style="list-style-type: none"> <li>■ EMAK. 36%</li> <li>■ GIZ. 64%</li> </ul>
ADIKZIO AURRETIK	265	236	501	 <ul style="list-style-type: none"> <li>■ EMAK. 53%</li> <li>■ GIZ. 47%</li> </ul>
PREBENTZIOA AA SECUNDARIA	1.767	1.585	3.352	 <ul style="list-style-type: none"> <li>■ EMAK. 53%</li> <li>■ GIZ. 47%</li> </ul>
TESTING	129	283	412	 <ul style="list-style-type: none"> <li>■ EMAK. 31%</li> <li>■ GIZ. 69%</li> </ul>
ALKOHOLEMIA INFORMATIBOAK	155	142	297	 <ul style="list-style-type: none"> <li>■ EMAK. 52%</li> <li>■ GIZ. 48%</li> </ul>










<b>BOTILTZARRA</b>	644	476	1120	<p>EMAK. 58% GIZ. 42%</p>
<b>PREBENTZIOA GAZTEEN LOKALETAN</b>	9	3	12	<p>EMAK. 75% GIZ. 25%</p>
<b>ADIZKIOEN IV. PLANA</b>	81	47	128	<p>EMAK. 63% GIZ. 37%</p>
<b>GUZTIRA</b>	<b>3571</b>	<b>3333</b>	<b>6904</b>	<p>EMAK. 51,7% GIZ. 48,3%</p>

### ADINAREN ARABERAKO PARTE-HARTZEA

PROGRAMA	ADINA				GUZTIRA	GRAFIKOA
	< 18	18-35	36-60	> 60		
<b>LAGUNEKIN BARATZEAN</b>	977	19	42	2	1040	
<b>MIMARTE</b>	35	2	5	0	42	

**ADINAREN ARABERAKO PARTE-HARTZEA**

PROGRAMA	ADINA				GUZTIR A	GRAFIKOA
	< 18	18-35	36-60	> 60		
<b>ADIKZIO AURRETIK</b>	475	2	23	1	501	
<b>PREBENTZIOA AA SECUNDARIA</b>	3128	91	129	4	3.352	
<b>TESTING</b>	112	289	15	0	412	
<b>ALKOHOLEMIA INFORMATIBOAK</b>	1	296	0	0	297	
<b>BOTILTZARRA</b>	662	454	0	0	1120	
<b>PREBENTZIOA GAZTEEN LOKALETAN</b>	0	12	0	0	12	
<b>ADIZKIOEN IV. PLANA</b>	0	26	95	7	128	

**Lagunekin baratzean, Mimarte eta Adikzio aurretik programetako** datuei dagokienez, zehaztu egin behar da aurrez ezarritako taldeei eskaintzen zaizkien programak direla, eta, beraz, parte-hartzea ez dela bat-batean sortzen, eta ez die genero-rolari erantzuten. Datu horiek baliozkoak dira prestakuntza jaso duten pertsonen ehunekoak jakiteko, baina ez dira eraginkorrak genero-ikuspegitik parte hartzea aztertzerako orduan. Gauza bera gertatzen da bigarren hezkuntzako prebentzio-programarekin; tailer horiek ikastetxeetan ematen dira, eta parte hartzea matrikulatutako ikasleen mende dago.

**Testing programari** dagokionez, grafikoan ikus daitekeenez, zerbitzua erabili zuten pertsona gehienak ( % 69) gizonak izan ziren, eta gehienak 18 eta 35 urte bitartekoak.







**Alkoholemia informatiboen** programan, grafikoan ikus daitekeenez, parte-hartzea orekatuagoa da: zerbitzua erabili zuten pertsonen % 52 emakumeak dira, eta % 48 gizonak, guztiak 18 eta 35 urte bitartekoak.






**Botilzarra programan**, emakumeen parte-hartzea zerbitzua erabili zutenen % 58ra igotzen da. Gehienak 18 urtetik beherakoak dira, eta, ondoren, 18 eta 35 urte bitartekoak.

**Gazteen lokaletako prebentzioari dagokionez**, grafikoan ikus daitekeenez, emakumeen parte-hartzea izan da nagusi, % 75ean. 18 eta 35 urte bitartekoak guztiak.

Azkenik, Adikzioen IV. Planean ere emakumeen parte-hartzea da nagusi, parte-hartzaileen % 63an. Horietatik % 95, gainera, 36 eta 60 urte bitartekoak dira.

## 2.1.11.- HAURRAK ETA FAMILIA

PROGRAMA	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA	GRAFIKOA
BANAKAKO PROIEKTUAK	25	49	74	 <ul style="list-style-type: none"> <li>■ EMAK. 34%</li> <li>■ GIZ. 66%</li> </ul>
TALDE PROIEKTUAK	193	236	429	 <ul style="list-style-type: none"> <li>■ EMAK. 45%</li> <li>■ GIZ. 55%</li> </ul>
PROIEKTU KOMUNITARIOAK	727	736	1463	 <ul style="list-style-type: none"> <li>■ EMAK. 50%</li> <li>■ GIZ. 50%</li> </ul>
GURASOEKIN	82	18	100	 <ul style="list-style-type: none"> <li>■ EMAK. 82%</li> <li>■ GIZ. 18%</li> </ul>
GAZTEEKIN	13	14	27	 <ul style="list-style-type: none"> <li>■ EMAK. 48%</li> <li>■ GIZ. 52%</li> </ul>
<b>GUZTIRA</b>	<b>1040</b>	<b>1053</b>	<b>2093</b>	 <ul style="list-style-type: none"> <li>■ EMAK. 49,7%</li> <li>■ GIZ. 50,3%</li> </ul>

ADINAREN ARABERAKO PARTE-HARTZEA						
PROGRAMA	ADINA				GUZTIRA	GRAFIKOA
	< 18	18-35	36-60	> 60		
<b>BANAKAKO PROIEKTUAK</b>	70	4	0	0	74	
<b>TALDE PROIEKTUAK</b>	415	14	0	0	429	
<b>PROIEKTU KOMUNITARIOAK</b>	1158	132	173	0	1463	
<b>GURASOEKIN</b>	0	7	91	2	100	
<b>GAZTEEKIN</b>	27	0	0	0	27	

Hezkuntza-taldeek egindako **banakako proiektu** gehienak gizon gazteekin egin dira, gauzatutakoen % 68 izan dira; gehienak adingabeekin.




**Talde-proiektuetan**, gizonen presentzia nagusi den arren, emakumeen parte-hartzea % 40raino igotzen da. Parte-hartzaile gehienak adingabeak dira.



**Proiektu komunitarioetan**, grafikoan ikus daitekeenez, parte-hartzea orekatuagoa da: zerbitzua erabili zuten pertsonen % 52 emakumeak izan ziren, eta % 48 gizonak, guztiak 18 eta 35 urte bitartekoak.

**Gurasoekin programan** emakumeek parte hartzen dute gehienbat, % 82 emakumea da. Parte hartzen duten emakumeek 36 eta 60 urte bitarteko adina dute.

**Gazteekin programan** parte-hartzea nahiko orekatua da, eta adin txikiko guztiak dira.

## 2.1.12.- GIZARTERATZEAREN SUSTAPENA - ZUBIA


PROGRAMA	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA	GRAFIKOA
EGUNEKO ARRETA ZERBITZUA ZUBIA	135	706	841	 <p>EMAK. 16% GIZ. 84%</p>
GAUEKO HARRERA-ZERBITZUA ZUBIA	86	579	665	 <p>EMAK. 13% GIZ. 87%</p>
GUZTIRA	221	1285	1506	 <p>EMAK. 14,7% GIZ. 85,3%</p>


ADINAREN ARABERAKO PARTE-HARTZEA						
PROGRAMA	ADINA				GUZTIRA	GRAFIKOA
	< 18	18-35	36-60	> 60		
EGUNEKO ARRETA ZERBITZUA ZUBIA	5	392	429	15	841	
GAUEKO HARRERA-ZERBITZUA ZUBIA	0	293	338	34	665	

Ikus daitekeenez, **Zubia eguneko arreta-zerbitzuaren erabiltzaile** gehienak gizonak dira. Zehazki, % 84 eta horien profila 18 eta 60 urte bitartekoa da.

**Zubia gaueko harrera-zerbitzuaren kasuan**, grafikoan ikus daitekeenez, zerbitzu horren erabiltzaile gehienak gizonak dira, eta aurreko zerbitzuarekin alderatuta, % 87raino igo da. Horien profila, aurreko zerbitzuan bezala, 18 eta 60 urte bitarteko gizonena da.

## 2.1.13.- KULTUR-ANIZTASUNA ETA INTEGRAZIOA

PROGRAMA	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA	GRAFIKOA
KULTURARTEKO BITARTEKARITZA	126	103	229	 <p>■ EMAK. 55% ■ GIZ. 45%</p>


ADINAREN ARABERAKO PARTE-HARTZEA						
PROGRAMA	ADINA				GUZTIRA	GRAFIKOA
	< 18	18-35	36-60	> 60		
KULTURARTEKO BITARTEKARITZA	0	104	95	6	229	

Ikus daitekeenez, zerbitzu honen erabiltzaile gehienak emakumeak dira. Parte hartu duten 229 pertsonen % 55a 18 eta 60 urte bitarteko emakumeak dira, eta lehen adin-tartean kokatzen dira erabiltzaile gehienak.










# LEHEN MAILAKO ARRETA

## 2.1.14.- LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA

EMAKUMEAK	GIZONAK	ADIN TXIKIKOAK	GUZTIRA	GRAFIKOA
38	0	3	41	 <p>■ EMAK. 92,7% ■ GIZ. 0% ■ &lt;18 URTE 7,3%</p>

## 2.1.15.- LAGUNTZA EKONOMIKOEN ESKAERA

ESKATUTAKO LAGUNTZA EKONOMIKOAK	EMAKUM EAK	GIZONAK	GUZTIRA	GRAFIKOA
MINUSBALIATUAK GIZARTERATZEKO LEGEA.	6	0	6	 EMAK. 100% GIZ. 0%
GIZARTE ONGIZATERAKO FONDOA	17	21	38	 EMAK. 44,7% GIZ. 55,3%
KOTIZATU GABEKO PENTSIOA (KGP).	249	156	405	 EMAK. 61,5% GIZ. 38,5%
GIZARTE-LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK.	433	193	626	 EMAK. 69,2% GIZ. 30,8%
UDAL LAGUNTZA EKONOMIKO BEREZIAK.	99	96	195	 EMAK. 50,8% GIZ. 49,2%
LAGUNTZA EKONOMIKOA BORTIZKERIA MATXISTAREN BIKTIMENTZAT.	7	0	7	 EMAK. 100% GIZ. 0%
<b>GUZTIRA</b>	<b>811</b>	<b>466</b>	<b>1277</b>	 EMAK. 63,5% GIZ. 36,5%






2019an egindako 1277 laguntza-eskaeretatik 811 emakumeek egin zituzten, hau da, eskaera guztien % 63,5.

# HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA

Hezkuntza Departamentutik Udal Haur Eskolako eta Kontserbatorio eta Musika Eskolako datuak azertu ditugu.


## 2.1.16.- UDAL HAUR ESKOLA

### > 2019/2020 IKASTURTEKO NESKA-MUTILAK

TALDEA	NESKAK	MUTILAK	GUZTIRA	GRAFIKOA
SEHASKA	2	8	10	 <p>■ NESKAK 20% ■ MUTILAK 80%</p>
TXIKIAK 1	7	2	9	 <p>■ NESKAK 77,8% ■ MUTILAK 22,2%</p>
TXIKIAK 2	5	5	10	 <p>■ NESKAK 50% ■ MUTILAK 50%</p>
TXIKIAK 3	5	7	12	 <p>■ NESKAK 41,7% ■ MUTILAK 58,3%</p>
ERTAINAK	4	8	12	 <p>■ NESKAK 33,3% ■ MUTILAK 66,7%</p>


HANDIAK	5	8	13	<p>NESKAK 38,4% MUTILAK 61,6%</p>
GUZTIRA	28	38	66	<p>NESKAK 42,4% MUTILAK 57,6%</p>

2019/2020 ikasturtean, Udal Haur Eskolan 66 haur matrikulatuta zeuden, 28 neska eta 38 mutil. Alderik handiena sehaska-klasean eman zen: 10 adingabe horietatik bi bakarrik ziren neskak.







## 2.1.17.- KONTSERBATORIOA ETA MUSIKA ESKOLA



### > IRAKASKUNTZA ARAUTUA - IKASKETA PROFESIONALAK


2019/2020 IKASTURTEA	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA	GRAFIKOA
IKASLEAK	43	43	86	 <p>EMAK. 50% GIZ. 50%</p>

Grafikoan ikus daitekeenez, ikasleak genero ikuspegitik orekatua daude, % 50 dira emakumeak eta beste hainbeste gizonak.

### IKASTURTEKA

2019/2020 IKASTURTEA	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA	GRAFIKOA
LEHENENGOA	9	4	13	 <p>EMAK. 69,2% GIZ. 30,8%</p>
BIGARRENA	8	8	16	 <p>EMAK. 50% GIZ. 50%</p>
HIRUGARRENA	8	9	17	 <p>EMAK. 47% GIZ. 53%</p>
Gorritz markatutako programak, lehen azaldu gisa, **datu ez desagregatuak** dituzten programa edota baliabideak dira. Programa hauen datu bereziak eskatu dira, baina ez dira lortu, ez direlako erregistratu edo ez daudelako eskuragarri. Laburbilduz, honako programa edo baliabideak izango lirateke:

#### GIZARTE ONGIZATEA, GAZTERIA ETA HEZKUNTZA ARLOA

- Memoria historikoa
- Giza Eskubideak eta Balioak
- Garapenerako Lankidetzak

- Arriskuan/babesik gabe dauden haur eta nerabeentzako programak:

Ez dago sexuaren arabera bereizitako daturik, familia kopurua eta adingabe kopurua kuantifikatzen dira soilik.

- Etxebizitza galtzeko egoera edota larrialdiko egoitzen baliabideetan:

Datuak ez daude sexuaren arabera bereizita, egoerak familia-unitate osoari eragiten baitio.

- Desgaitasun- eta mendetasun-programak (balorazioak, egoitzak, prestazio ekonomikoak, laguntza-produktuak, eguneko zentroak, egoitza-zentroak, etab.):

Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako datuak ez daude sexuaren arabera bereizita.

- Gizarteratzearekin lotutako programak (gizarte- eta hezkuntza-arloko laguntzak, GFAko baliabideetan egoitza edota udalaren harrera-etxebizitzetan):

Ez daude sexuaren arabera bereizita.

- Gazteentzako Informazio Bulegoa

#### KULTURA ETA KIROL ARLOA

- Amaia Kultur Zentroa

#### INFORMAZIOAREN GIZARTEAREN, HERRITARREN PARTE-HARTZEAREN ETA AUZOEN ARLOA

- Egoitza elektronikoa

#### UDALZAINGOAREN ETA BIZIKIDETZAREN ARLOA

- Bide-hezkuntza lehen hezkuntzarako

- Bide-hezkuntza bigarren hezkuntzarako

#### HIRIA, OGASUNA ETA EKONOMIA SUSTATZEKO ARLOA

- Zerga-bilketako zerbitzuak

**Partzialki bereizitako datuei dagokienez**, programak honako hauek dira, eta honela kalifikatzeko arrazoia honako hauek dira:

#### GIZARTE ONGIZATE, GAZTERIA ETA HEZKUNTZA ARLOA

- Adineko pertsonentzako programak, beste erakunde batzuekin lankidetzan egindako proiektuetarako:

Lankidetzako proiektuei buruzko datuak eman dizkigute, hala nola Tipi-Tapa proiektua, Osakidetzarekin lankidetzan egina. Nagusilan eta Irungo Udaleko Kirol Saila, edo Osakidetza-Euskal Biodonostia-EHUko Ikerketa, edo La Caixa Fundazioaren proiektuak, bai eta sailen arteko beste tailer batzuenak ere, baina horien guztien datuak partaidetza osoei buruzkoak ziren, inolako datu bereizirik gabe. Hala ere, programa honi dagozkion beste datu bereizi batzuk eman zaizkigunez, partzialki bereizitako programaren balorazioa esleitzea baloratu dugu.

- Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako arreta-programa, partzialki bereizita dagoela uste dugu; izan ere, logikoa denez, artatutako pertsonak emakumeak dira, baina adingabeetan ez da sexuaren araberako bereizketarik egiten.

#### KULTURA ETA KIROL ARLOA

- Irun Factory:

Partzialki bereizita kalifikatzen da, Kontenporanearen kasuan ez dagoelako sexuaren arabera bereizitako daturik, bisiten erregistroa kontagailuarekin egiten delako, eta, beraz, ezinezkoa da parte-hartzaileak sexuaren arabera kuantifikatzea.

- Eskola-kirola:

Ez dago adin-tarteen araberako daturik eta sexuaren araberako bereizketarik; bereizitako datuak parte-hartzaile kopuru totalarenak dira.

#### HIRIA, OGASUNA ETA EKONOMIA SUSTATZEKO ARLOA

Aztertutako bi programa partzialki bereizitako datu gisa baloratu ditugu; izan ere, programa bakoitzaren barruan, bananduta eman zaizkigun datuez gain, beste jarduera-ildo edo tailer askoz gehiago daude, eta horiei buruzko datuak ez dira sexuaren arabera bereizi.



Administrazioak edozein politika publiko diseinatzeko, ezartzeko eta aplikatzeko ezinbestekoa du benetako egoeraren berri izatea eta diagnostiko egokia egitea. Aurretiazko urrats hori da, errealitatearen ezagutza hori, Administrazioaren jardunaren eraginkortasuna eta efizientzia bermatuko dituen.

Datuak sexuaren arabera bereizi beharra funtsezkoa da genero-eraginari buruzko txostenak egiterako orduan. Arau-xedapenek edo politika publikoek emakumei eta gizonei, modu berezian, eragin diezazkieketen emaitzak identifikatzea eta balioestea da txosten hauen helburua. Hain zuzen ere, emakumeen eta gizonen errealitateek markatzen eta zailtzen dute onurak berdin aprobetxatzea.

Errealitatearen ezagutza horretara hurbiltzeko eta, era berean, genero-zeharkakotasunaren printzipioa aplikatzeko, ezinbestekoa da aldez aurreko baldintza bat betetzea: estatistikak, azterlanak eta datuak sexuaren arabera bereizita lortzea. Horretarako, sexuaren arabera banakatutako datuek eta estatistikek emakumeek eta gizonek beren bizitzako alderdi guztietan duten egoeraren berri eman behar dute.

Horregatik guztiagatik, ezinbestekoa da arlo guztietan bildutako datuak sexuaren arabera bereizita egotea eta genero-adierazleak izatea.

Hala eta guztiz ere, ikerketan azaldutako datuen isla orokorrak erakusten du Irunen genero-rolak oraindik ere errepikatzen direla.



Modu orokorrean, emakumeek, beren bizitzaren zatirik handienean eta udal-programa gehienetan duten parte-hartzea, gizonena baino modu baldintzatuagoan garatzen dutela ondoriozta daiteke. Joera hori, ordea, erabat aldatzen da 65 urtetik aurrera. Adineko emakumeek, gaztaroan eta helduaroan baino askoz gehiago, eta beren adineko gizonek baino gehiago, aprobetxatzen dituzte eskaintzen diren udal-baliabideak; batez ere gizarte, kultura eta kirol-jarduerei dagokienean. Beraz, nabarmentzekoa da adin horretatik aurrera parte-hartzeak duen iraultza.

Hala ere, haurtzaroan, gaztaroan eta helduaroan emakumeen parte-hartzea txikiagoa da ia programa eta baliabide guztietan.


Helduaroan aurkitutako salbuespenetako bat adinekoen eta adingabeen zaintzarekin lotutako jarduerak dira. Emakumeek askoz gehiago parte hartzen dute gurasoentzako eskoletan (Gurasoekin, esaterako) eta zaintzaileentzako prestakuntza edo programetan (PECE edo Sendian, familia zaintzaileei laguntzeko programa). Gainera, euskara ikasteko guraso taldeetan gehien parte hartzen dutenak dira ere.

Era berean, emakumeak gehiago aritzen dira pertsona fisikoen ordezkari gisa Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan. Horrek esan nahi du laguntzen eta zerbitzuen izapideak egiten dituztela, bai haien izenean, bai inguruan dituzten eta zaintzen dituzten pertsonen izenean (gurasoak, adingabeak edo tutoretzapekoak). Emakumeek ere laguntza ekonomiko gehiago jasotzen dituzte, bai pertsonalak, bai familiarrak.

SENDIAN PROGRAMA				
	EMAKUMEAK	GIIZONAK	GUZTIRA	GRAFIKOA
<b>BANAKAKO ARRETA</b>	32	14	46	 <p>EMAK. 69,6% GIZ. 30,4%</p>

<b>TALDEKO ARRETA</b>	4	2	6	
<b>GUZTIRA</b>	36	16	52	

*Ikus daitekeenez, artatutako 52 pertsonetatik gehienak (36) emakumeak dira, hau da, % 69,2.*


<b>FIZPE JASOTZEN DUTEN ZAINZAILAENTZAKO PRESTAKUNTZA</b>			
<b>EMAKUMEAK</b>	<b>GIIZONAK</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>GRAFIKOA</b>
108	45	153	

*Prestakuntza jaso duten pertsona gehienak emakumeak dira, hartzaileen % 70.*

Datu horiek emakumeek zaintzarekin duten lotura, eta eurentzat dakarren zama agerian jartzen dute.

Nabarmentzekoa da emakumeen parte hartze baxua kirolari buruzko programa ia guztietan eta oso adin txikitik gainera. Aipamen berezia merezi du Eskola Kirola programak. Gipuzkoako Foru Aldundiak zuzentzen duen egitasmoak neska-mutilak aktiboak izatea eta kirol-kulturan heztea du helburu. Hala ere, nesken parte-hartze tasa mutilena baino askoz txikiagoa da. 2019an, azterlanaren urtean, Irungo eskoletan parte hartu zutenen % 75 baino gehiago mutilak ziren.

#### **> HAURREN IZEN-EMATEAK ESKOLA KIROLA PROGRAMAN**

<b>NESKAK</b>	<b>MTUILAK</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>GRAFIKOA</b>
192	680	872	


*Parte hartu duten 872 pertsonetatik, gehienak mutilak dira, % 78.*

Eskola Kirolak haurrak eta gazteak kirolera hurbiltzea du helburu, adin horietan kirola egitea pertsona bezala garatzeko oso garrantzitsua dela ulertuta. Nesken parte-hartze ezak belaunaldi berriak berdintasunez aritzeko kirol-estrategia berriei beharko lieke bide. Beraz, ez legoke soberan programa honen azterketa xeheagoa egitea, arrazoiak aurkitzeko eta irtenbideak eskaintzeko.

Eskola Kirolaren programa Lehen Hezkuntzako lehen mailan hasten da, sei urtetik aurrera, eta seigarren urtera arte irauten du, hau da, 11-12 urtera arte. Adin horietan, batez ere azken urteetan, adingabeek erabakitzen dute programan parte hartu ala ez, gurasoek izan dezaketen eraginaz harago. Hala ere, deigarria da gure hiriko bi kiroldegiak eskaini eta hiru urtetik gorako adingabeak hartzen dituzten igeriketa-ikastaroetan dagoen desoreka.

Haur horiek oso gaztetan apuntatzen dira ikastaroetara, gehienak hiru urte ingururekin, eta, beraz, gurasoek hartzen dute bertan parte hartzeko erabakia. Ikastaro hauetan igeri egiten ikasiko duten mutilak neskak baino askoz gehiago direla ondorioztatu dugu.





IGERIKETA-1 DORDOKA	NESKAK	MUTILAK	GUZTIRA
<4	94	137	231
5-9	62	74	136
10-14		1	1
<b>GUZTIRA</b>	<b>156</b>	<b>212</b>	<b>368</b>



Dirudenez, genero-erolek ere eragina dute gure seme-alabak kirolean hezteko orduan, eta, kirolean neskek parte har dezaten sustatzeko, beharrezkoa litzateke gurasoak sentsibilizatzea, emakumeak eta neskak kirolera hurbiltzeko beharra ikusarazteko.


Kirolaren esparruan jarraituz, deigarria da emakume gazteen partaidetza eskasa Gaztelekuak antolatutako skatearen inguruko jardueretan. Hezitzaileek zuzendutako edo proposatutako gainerako jardueretan, neskak gehiengoaren diren arren, zehazki Gazteartean Urban programaren barruan eta Skateari dagozkionak, hala nola Skate Eguna edo Surf Skate, oso gutxi dira parte hartzen duten neskak.

## > GAZTEARTEAN URBAN

GazteARTEan Urban	NESKAK	MUTILAK	GUZTIRA	NESKAK
SKATE EGUNA	1	28	29	 <ul style="list-style-type: none"> <li>NESKAK 3,4%</li> <li>MUTILAK 96,6%</li> </ul>
SURF SKATE	4	7	11	 <ul style="list-style-type: none"> <li>NESKAK 36,4%</li> <li>MUTILAK 63,6%</li> </ul>
SURF	11	3	14	 <ul style="list-style-type: none"> <li>NESKAK 78,6%</li> <li>MUTILAK 21,4%</li> </ul>
GUZTIRA	16	38	54	 <ul style="list-style-type: none"> <li>NESKAK 29,6%</li> <li>MUTILAK 70,4%</li> </ul>

Santiagoko bidegorriaren amaieran dagoen monopatinarekin praktikatzeko gunea, 2.094 metro koadroko espazioa, Gipuzkoako skate parkerik handienetakoa, eta horrek zaletasun handia ekarri du Irungo gazteen artean. Horiek horrela, ez legoke soberan Irungo gazteen artean modan dagoen kirol honetan neskatoen parte-hartzea sustatzeko ekimenak martxan jartzea. Horretarako, interesgarria litzateke emakumeak kirol honetan ahalduntzea, bai adin goiztiarretan bai gazteetan.

Helduaroan, gizonek eta emakumeek kirolean ematen duten denbora ez da proportzionala. Horren erakusgarri dira hiriko kiroldegietako datuak. 65 urte bete arte, gizonezkoak gehiengoa dira bazkide-kopuruan adin-tarte guztietan. Bereziki nabarmena da 35 eta 44 urte bitartekoen arteko aldea, eta, ondoren, 45 eta 54 urte bitartekoena. Hain justu emakumeen bizitzako bi hamarkada horiek adingabeak hazteak, adinekoak zaintzeak edo bakoitzaren lan-bizitzak markatu ohi ditu. Kirola egitearekin uztartzeko zailak diren errealitateak guztiak.



Datu horien eta kirolerako benetako denbora faltaren atzean kontziliaziorako beharra dago. Emakumeek gizonak baino eragozpen gehiago dituzte familia, lana eta kirola uztartzeko, baina errealitate horri ez zaio kirolek bakarrik aurre egiten. Esparru horretatik ekimen txikiak har daitezke, ordutegi egokiagoak izan daitezzen edota ikastaroetan malgutasun handiagoa izan dadin. Baina kontziliazioaren eztabaidak arlo hori gainditzen du.

Kontziliazioa honako hau da: *"Emakumeek eta gizonak familia-bizitzan eta lan-merkatuan parte-hartze orekatua izatea, lan, hezkuntza- eta gizarte-baliabideen sistemak berregituratuz eta berrantolatuz lortzen dena, enpleguan aukera-berdintasuna sartzeko, rol eta estereotipo tradizionalak aldatzeko eta mendekotasuna duten pertsonen arreta eta zaintza-premiak estaltzeko"*. Horrela definitzen da Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailean. Errealitateak erakusten du, ordea, oraindik bide luzea dagoela egiteko.

Kontziliazioaren gaiari lotuta dago denboraren inguruko eztabaida. Nahiz eta denbora berdina izan pertsona guztientzat, hautemateko modua aldatu egiten da hainbat faktore pertsonalen, familiakoen, lanekoen, gizarte-testuinguruaren eta bizi garen ingurunearen arabera.

Egindako azterketak argi eta garbi erakusten du emakumeek gehiago parte hartzen dutela alde aurretik planifikatu daitezkeen jardueretan, eta horrek agerian uzten du denboraren kontrola, kudeaketa eta erabilera ez direla berdinak gizonentzat eta emakumeentzat.

Udal-kiroldegietako emakume bazkide-kopurua 65 urte bete arte txikiagoa izan arren, emakumeek gehiago parte hartzen dute alde aurretik zuzendutako eta planifikatutako jardueretan. Eta hori gertatzen da bai kirolean, -non antolatutako ikastaroetan emakumeak gehiengoa diren-, bai Gaztelekuan, -non egunero mutil gehiago hurbiltzen diren arren neskak gehiago dira antolatutako tailerretan.

Emakumeek eta gizonak udal-programa eta baliabideetan duten parte hartzea aztertzerakoan, kontziliazioari buruzko eztabaidari eutsi egin behar zaio, bere konplexutasun osoan gainera.

Emakumeen parte-hartze eza ez da interes faltaren ondorio, ezintasunaren ondorio baizik. Ez da ez dutela nahi, ezin dutela baizik.

## > PROZESU PARTE-HARTZAILEAK OROKORREAN

ADIERAZLEA	EMAKUME AK (%)	GIZONAK (%)	GUZTIRA	GRAFIKOA
<b>Batez besteko parte-hartzea aurrez aurreko saioetan</b>	58%	42%	100 %	<p>EMAK. 58% GIZ. 42%</p>

Adibidez, Irungo Udalak bultzatutako parte-hartze prozesuetan, emakumeak izan ziren nagusi. Bai saio presentzialetan (ia % 60), bai horien on-line parte-hartzean (560 emakumek parte hartu zuten, 991 pertsonetatik). Halaber, 2019an, emakumeek abisu, kexa edo iradokizun gehiago aurkeztu dituzte Udalak eskainitako zerbitzuan.

Emakumeek beren iritzia eman nahi dute Udalak proposatutako parte-hartze prozesuetan, eta hala egiten dute beren egoerarako formula egokia aurkitzen dutenean. Kasu honetan, tresna digitalek lagundu dute bertaratzeko aukerarik izan ez duten pertsonen ahotsa entzunarazten. Ildo horretan, formula berriak aurki litezke, hala nola bileren ordutegiak aztertzea edota adingabeei zaintza-zerbitzua eskaintzea, haien parte-hartzea sustatzen jarraitzeko.

Horri dagokionez, azpimarratzekoa da hiriko 17 auzo-elkarteetatik 5etan soilik daudela emakumeak buru.

## > AUZO ELKARTEAK

ADIERAZLEA	EMAKUME AK	GIZONAK	GUZTIRA	GRAFIKOA
<b>Auzo elkarteetako lehendakari emakumeak vs. Auzo elkarteetako lehendakari gizonezkoak</b>	5	12	17	<p>EMAK. 29,4% GIZ. 70,6%</p>

Horrekin guztiarekin ondoriozta dezakegu, emakumeek gehiago parte hartu arren, gizonak jarraitzen dutela botere-postuetan. Emakumeek ahotsa emateko guneetan parte hartzen dute, baina modu diskretuagoan eta denboretan eta erantzukizunetan inplikazio gutxiagorekin.

Tokiko botereak oraindik gizonen esku daudela adierazten dute datu horiek, eta boterera iristen diren gizonen gizarte-sustapena eta esperientzia handiagoa dela emakumeena baino.

Genero-rolak eta -estereotipoak oso presente daude oraindik udal-programak eta baliabideak aukeratzerakoan. Herritarrek kirol-jardueretan duten parte-hartzea generoak baldintzatzen du oraindik ere, eta, adibidez, zumban gehienak emakumeak dira eta gizonak zirkuituetan diren bitartean. Musika Kontserbatorioan ere generoaren eragina nabarmena da musika-instrumentuaren hautaketan; hala, zeharkako txirula ikasten dutenen artean askoz neskato gehiago dira eta perkusioa egiten dutenen artean, mutilak dira nagusi.

Aztertutako udal-programetako jardueretan aritzen diren begiraleak ere azertu ditugu, eta emakumeak gehiengoak diren bitartean hezkuntza-jarduera orokorretan, Solas Jolas kasu, begirale gizonak gehiengoak dira kirol-jardueretan, hala nola Eskola-Kirolean. Kontutan hartu beharra dago, begirale izateaz gain pertsona hauek erreferente bihurtzen direla euren ikasle gazteentzat.

Jasotako datuen irakurketaren beste ondorioetako bat gizonen intentsitate-baliabideak gehiago erabiltzen dituztela da, hala nola ingurune irekiko hezkuntza-arloko esku-hartze proiektu indibidualak, Zubia Gizarteratze Zentroa edota gizarte-ongizatearen tutoretzapeko etxebizitzak.

Generoaren sozializazioa desberdina da; beraz, ondoriozta daiteke mutilak desberdin sozializatzen direla haurtzarotik, eta esku-hartzeak beharrezkoagoak izan daitezkeela horregatik. Hala ere, gomendagarria litzateke programa hauetan lan egiten duten pertsonen ikuspegia ezagutzea, esku-hartze horiek definitzerakoan genero-ikuspegia gehitzeko eta ikuspegi hau barne hartzeko, bai atzematean, bai esku-hartzean zein ebaluazioan.

Bestalde, udal artxiboko datuek ere genero-joera handia erakusten dute, izan ere, ikertzaile gizonak askoz gehiago dira bertara sartzen diren emakume ikertzaileak baino. Hala eta guztiz ere, oso interesgarria izango zen adinaren aldaera aztertzea.

## > ARTXIBO HISTORIKOA

ADIERAZLEA	EMAKUMEA AK	GIZONAK	GUZTIRA	GRAFIKOA
<b>Beren bulegoetan ikerketa historikoko lanak egin dituzten ikertzaileen kopurua (dokumentazio historikoa bilatzeko eta aztertzeko lanean 5 ordu baino gehiago eman dituzten erabiltzaileak).</b>	4	26	30	 <p>EMAK. 13,3% GIZ. 86,7%</p>

Artxibo historikoan kontsulta-zerbitzua erabili duten pertsona gehienak gizonetakoak izan dira. Zenbatutako 32 pertsonetatik % 12,5 emakumeak izan dira.

## > ARTXIBO ADMINISTRATIBOA

ADIERAZLEA	EMAKUME AK	GIZONAK	GUZTIRA	GRAFIKOA
<b>Partikularren kontsulta kopurua</b>	150	237	387	 <p>EMAK. 38,8% GIZ. 61,2%</p>

Administrazio-artxiboan kontsulta-zerbitzua erabili duten pertsona gehienak gizonezkoak izan dira. Zenbatutako 387 pertsonetatik % 38,6 emakumeak izan dira.







## 4.- PROPOSAMENAK

*"Izan ere, oro har, emakume gehienek dituzten aukerak eta desberdintasunak mantendu egin dira, baita lehen itxita zeuden eremuetara iritsi ahal izan denean ere. Sarbideak ez du nahitaez diskriminazioarekin amaitu; esate baterako, hezkuntzarako eskubideak eta gazteek hezkuntza-sisteman sartzek ez dute eragotzi sexuaren arabera bereizketa handia egotea aukeratutako ikasketa eta lanbideetan. Beraz, esku hartzeko beste modu batzuk behar dira Emakumeek baldintza berdinetan parte hartzeko benetako oztopoak kentzera bideratuak "*  
(Arteaga, Txaro. 2000, 15. orr. )

Txaro Arteagaren hitzetatik abiatuta, udal-politiketan genero-ikuspegi transbertsalaren beharra azpimarratu nahi dugu.

**Politikak ez dira neutroak.** Generoaz jabetzen diren politikek onartzen dute eragile sozial, ekonomiko eta politikoak emakumeak direla, gizonak bezainbeste, eta esku-hartze publikoek modu desberdinean, eta askotan desorekatuan, eragiten dietela biei. Halaber, onartzen dute emakumeen eta gizonen rola eta jarduerak desberdinak direla, eta, beraz, biek izan ditzaketela premia, interes eta lehentasun desberdinak, eta askotan gatazkatsuak.

Genero-kontzientziaren maila handiagoek eragin dezakete esku-hartzeak planifikatzen dituztenek desberdintasunak minimizatzea, dagoen arraila mugatzen duten proposamen eta ekintzen bidez.

Beraz, ezinbestekoa da generoari buruzko kontzientziazioa eta prestakuntza izatea udal-arlo guztietan, gobernatzaileetatik hasi eta teknikarietaraino, zeharkakotasun hori egia bihur dadin.

Emakumearen Munduko Laugarren Konferentzian (Beijing, 1995), genero-zeharkakotasunaren estrategia esplizituki onartu zuen Munduko Ekintza Plataformak, eta honako hau adierazi zuen: *"Gobernuek eta beste eragile batzuek genero-zeharkakotasunaren politika aktibo eta ikusgarri bat sustatu beharko lukete beren politika eta programa guztietan, erabakiak hartu aurretik emakumeengan eta gizonengan, hurrenez hurren, izandako ondorioen azterketa bat egin dadin"*.

Europa mailan, estrategia hori Europako Batzordearen emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunari buruzko Hirugarren Ekintza Programa Komunitarioan (1991-1995) aipatu zen, eta gai nagusia izan zen Laugarren Ekintza Programan. 1996an, Batzordeak komunikazio bat egin zuen genero-zeharkakotasunari buruz, eta bertan ezarri zuen estrategia horrek berekin dakarrela *"berariazko neurri eta politika orokor guztiak mobilizatzea, berdintasuna lortzeko helburuarekin, plangintza-etapan modu aktiboan eta irekian kontuan hartuta zer eragin izan dezaketen gizonen eta emakumeen egoeretan (genero-ikuspegia)"*.

Parte-hartzeari buruzko datuak aztertzea da errealitatea ezagutzeko lehen urratsa: ikusten ez dena, ez da existitzen. Desberdintasuna ez bada neurtzen, ez da gizarte-arazotzat hartzen, eta ez da horretan esku hartzeko beharrik ikusiko.

Eta desberdintasunetan esku hartzen ez bada, ugaltzeko joera dago, eta hori bereziki larria da errealitate/arazo sozialen kasuan, hala nola genero-desberdintasunen kasuan, erresistentzia handiak aurkitzen baitituzte parean.

## 4.1.- PROPOSAMEN OROKORRAK

**1.- Datuak sexuaren arabera bereizi eta beren baliabideen kudeaketarekin lotutako genero-adierazleak sartu beharra dago, sexuaren araberako bereizkeriarik dagoen edo ez aztertzeko informazio erabilgarria izateko. Informazio hori beharrezko oinarria izango da, desberdintasunak antzemanaz gero, baliabideak kudeatu eta politikak birbideratzeko.**

*a) Estatistiketan, inkestetan eta datu-bilketan sexuaren aldagaia sistematikoki sartzea.*

*b) Estatistika-eragiketetan genero-adierazleak txertatzea, emakumeen eta gizonen balio, rol, egoera, baldintza, jomuga eta beharizanetan dauden aldeak hobeto ezagutzeko, eta aztertuko den errealitatean zer adierazpen eta elkarreragin duten jakiteko, ikerketa edo inkesta kualitatiboen bidez.*

*Genero-adierazleek genero-berdintasunaren inguruko proiektu, programa eta ekintzek duten eragina neurtzeko eta ebaluatzeko aukera ematen dute. Genero-aldaketak eta horien arteko harremanak erakustea eta adieraztea du helburu.*

*c) Emaitzak sexuaren eta generoaren ikuspegitik aztertzea. Era berean, sexuagatik eta generoagatik ematen diren desberdintasun-egoerari buruzko azterketa eta ikerketak egin beharko lirateke.*

**2.- Udal-proposamenen eremuan, sarbidearekin, lan-baldintzekin, sustapenarekin eta abarrekin lotutako informazio eta hedapen-ekintzen edukiak eta hizkuntza, idatzia zein bisuala, berrikustea.**

*Hizkuntzaren erabilera sexista ezabatzea, eta emakumeen eta gizonen irudiaren erabilera bermatzea eta sustatzea, sexuen arteko berdintasunean oinarrituta, bizitza publiko eta pribatuko eremu guztietan.*

**3.- Erakunde laguntzaileekin edo baliabideen kudeaketarekin lotutako funtzioak egiteko kontratatutako agenteekin ere lan egin behar da emakumeen parte-hartzea bultzatzeko; ildo horretan, baldintza bereziak ezarri behar dira erakunde horiekin egiten diren kontratuak/hitzarmenak gauzatzeari dagokionez, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta partaidetza bultzatzeko.**

## 4.2.- PROPOSAMENAK ARLOKA ETA UDAL-PROGRAMEN ARABERA

Jarraian, ondorio zehatzak eta hobetzeko proposamenak proposatzen ditugu udal-programa eta baliabideetarako.

### 4.2.1.- GIZARTE ONGIZATEA, HEZKUNTZA ETA GAZTERIA ARLOA

#### GIZARTE ONGIZATEA

##### ADINEKO PERTSONAK

Jasotako datuei dagokienez, gizarte-zentroetan egiten diren jardueren parte-hartze oso zehatza jaso dugula adierazi behar da, eta ez hain zehatza, aldiz, beste baliabide batzuetan. Alabaina, Udalak beste erakunde batzuekin lankidetzan egiten dituen programetako datuak sexuaren arabera bereizi gabe daude.

Irungo adineko emakumeak gizonak baino parte hartzaileagoak dira, eta adineko pertsonentzako gizarte-lokalak dauden auzo guztietan ematen da egoera bera. Datu horiek bat datoz Gizarte Ongizateak emandakoekin, non erakusten baita emakumeak gehiengo direla proposatutako ia jarduera guztietan. Zuzendutako jardueretan, emakumeen parte-hartzea % 80tik gorakoa da kasu guztietan, eta proposatutako jarduera puntual guztietan ere gehienak emakumeak izan ziren.

Palmera Monteroko gunea da gizon gehien hurbiltzen den zentroa, baina, batez ere, egotera joatera dira, bertako jardueretan parte hartu gabe.

Zentroen hurbiltasun-egoerak erraztu egiten du pertsonak eta, zehazki, emakumeak haietara sartzera eta proposamenetan parte hartzea.

Etxeko laguntza emakumeek gizonak baino gehiago erabiltzen duten baliabidea da, bai etxez etxeko laguntza, bai otordu- edo farmazia-zerbitzuak ere.

Hala ere, egoitza-etxebizitzetan eta tutoretzapeko etxebizitzetan artatutako pertsonak gizonak dira gehiengo. Egoitza-etxebizitzak pertsona autonomoen pisuak dira, intentsitate handiagoko baliabiderik behar ez dutenak. Etxebizitza berean bizi dira, baina gizarte-langile baten jarraipenarekin.

Ez dakigu eskatzaile gehienak gizonak diren edo zuzenean gizarte-zerbitzuek hautemandako pertsonak diren, baina adineko gehienak emakumeak izanik, deigarria da baliabide horien erabiltzaile gehienak gizonak izatea.

Apartamentu horietan eskainitako jardueretan ordea, bestelako zentroetan bezala, gehienak emakumeak dira.

Gizarte-isolamenduko programan, berriz ere, emakumeak dira egindako elkarrizketetan nagusi.

Zerbitzuarekin lan egiten duten erakunde laguntzaile askok ez dituzte sexuen arteko datu bereziak, eta, beraz, ez dakigu zein da horietan emandako parte-hartzea.

Oro har, ondoriozta daiteke adineko emakumeek, gizonak baino gehiago, aprobetxatzen dituztela eskainitako udal-baliabideak; batez ere gizarte eta kultura-jarduerei dagokienean.

## HOBKUNTZA PROPOSAMENAK

<b>ADINEKO PERTSONAK</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>&gt; Baliabideetan emakumeen parte-hartzea bultzatzen jarraitzea eta hiriko beste auzo batzuetan eredia erreproduzitzeko aukera planteatzea.</li><li>&gt; Zerbitzua ezagutzen ez duten emakumeen parte-hartzea bultzatzea.</li><li>&gt; Bizitoki-baliabideen azterketa: egoitza-etxebizitzetan eta tutoretzapeko apartamentuetan gehienbat gizonak direlako.</li><li>&gt; Zerbitzuarekin lankidetzan diharduten erakunde guztiei genero-ikuspegia duten datuak bereizteko eskatzea.</li></ul>
------------------------------	---

## GARAPENERAKO LANKIDETZA, GIZA ESKUBIDEAK, BALIOAK ETA BERDINTASUNA

Berdintasunak proposatutako jardueri dagokionez, parte-hartze espontaneorik gabeko tailerretan modu proportzionalan parte hartzen da; hala nola, bigarren hezkuntzako ikastetxeetan emandako Beldur Barik tailerretan.

Ahalduntze-eskolari dagokionez, eskola hau emakumei zuzendua dago soilik, eta beraz jardueretan, erantzunkidetasun-tailerra izan ezik, parte-hartze nagusia adineko emakumeena da, eta 18 eta 35 urte bitartekoen artean parte-hartze txikiagoa delarik.

Hala ere, jaietako sentsibilizazio-kanpainan emakume gazteak gehiengoa dira. Ondoriozta daiteke emakume gazteek, eskola-jardueretan ez badaude, ez dutela udal-proposamenetan parte hartzen. Hala ere, jarduera kalera ateratzen denean eta dauden lekuetara hurbiltzen denean, interesa agertzen dute.

## HOBKUNTZA PROPOSAMENAK

<b>BERDINTASUNA</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>&gt; Baliabideetan emakumeen parte-hartzea bultzatzen jarraitzea, eta adinekoentzako gizarte-zentroen harrera ona ikusita, berdintasunaren aldeko eskaintza hiriko auzoetara eramatea.</li><li>&gt; Zerbitzua ezagutzen ez duten emakumeen parte-hartzea bultzatzea.</li><li>&gt; Emakume gazteen parte-hartzea sustatzea tailerretan.</li><li>&gt; Zerbitzua espazio informaletara hurbiltzea.</li></ul>
---------------------	---

## ESKU-HARTZE KOMUNITARIOA

Ikastetxeei eskaintzen zaizkien berdintasun-jardueren kasuan bezala, adikzioen prebentzioari dagokionez, atal honetako proposamen gehienak proportzionalak dira.

Hala ere, kalera ateratzean, parte-hartzea aldatu egiten da, eta gazteak dira parte-hartzaile gehienak. Alkoholemia informatiboetan eta Botilzar programan emakumeak izan dira nagusi, baina test-ing programan gizonak dira gehiengoa.

Deigarria da neskek gehiengoa izatea gazteen lokaletan garatutako prebentzio parte-hartzeetan, neskek modu espontaneoan hezitzaileek zuzendutako jarduera gehiagotan parte hartzen dutela ulertuta.

Haurtzaroan eta familian kokatutako programetan, parte-hartzea desberdina da. Ingurune irekiaren bidez gauzatutako banakako proiektuetan, hezitzaileek gazteekin esku-hartzeak egiten dituztenean, mutilak gehiengoa izan dira.

Nesken proportzioa handitu egiten da proiektuak taldekoak direnean. Proiektu komunitarioetan parte-hartzea berdindu egiten da. Argi dago mutilen sozializazioa ez dela neskena bezalakoa, eta horrek esku-hartze beharra areagotu dezake, baina, hala eta guztiz ere, dagoen alde ulertzeko komenigarria litzateke egoeraren azterketa egitea eta inplikaturako eragileek esku-hartzeak aukeratzekoan genero-joerarik duten ikusteko.

Gurasoekin programan gehienbat emakumeak dira, seme-alaben zainketa eta arazoekiko inplikazioa oraindik ere maila handi batean emakumei dagokiela erakusten du datu horrek.

Zubia zentroan, eguneko zein gaueko arretan inklusioa sustatzeko zerbitzuak emandako datuetan, gizonak dira nagusi.

HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK	
<b>ADIKZIOEN PREBENTZIOA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>&gt; Genero-ikuspegia sartzea esku-hartzeetan eta ondorioetan.</li> <li>&gt; Sexuaren arabera bereizita parte hartzen duten pertsonen datuak biltzea.</li> </ul>
<b>HAURTZAROA ETA FAMILIA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>&gt; Banakako hezkuntza-proiektuetan dagoen parte-hartze desberdina aztertzea.</li> <li>&gt; Kanpaina, zaintzak banatzeko beharraren inguruko kontzientziazioa bultzatzea.</li> <li>&gt; Gizonezkoen artean guraso taldeetan parte hartzea bultzatzea.</li> </ul>
<b>GIZARTERATZEAREN SUSTAPENA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>&gt; Zubia Gizarteratze Zentroa genero-ikuspegitik nola erabiltzen den aztertzea.</li> </ul>

## LEHENEN MAILAKO ARRETA

Nabarmendu behar da lehen mailako arretako datu asko ez daudela sexuaren arabera bereizita: ez arrisku/babesgabetasuneko haur eta nerabeen programetan, etxebizitza galtzeko edo larrialdiko urruntze-egoeren programan, ez desgaitasunari eta mendetasunari buruzko datuetan, ez gizarteratzearekin lotutako programetan (gizarte- eta hezkuntza-arloko laguntzak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren baliabideetako ostatuak, etab.)

Emandako datu bereizietatik azpimarratzekoa da laguntzen eskatzaile gehienak emakumeak direla, eta gizarte-larrialdietarako laguntzen datua analizatuz, esaterako, eskatzaileen ia % 70 emakumeak izan zirela.

Laguntza psikologikotik hasi eta gizarte-larrialdietarako laguntzetaraino, emakumeek egiten dituzte eskaera gehien, nahiz eta laguntzak familia osoarentzat izan. Familia-ekonomia egoera ahuletan ardurak hartzen dituztenak emakumeak direla ondoriozta daiteke datu hauetatik.

## HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

### LEHENENGO MAILAKO ARRETA

- > Datuak sexuaren arabera segregatu.
- > Genero-adierazleak txertatzea laguntzen eskatzaileen jarraipenean.

## GAZTERIA

Gaztelekuak emandako datuak aztertu ondoren, ikus daiteke 12 eta 17 urte bitarteko mutilak direla Gazteleku zerbitzua erabiltzera gehien hurbiltzen direnak, eta, gainera, modu espontaneoagoan erabiltzen dutela, aurreikusita dagoen programazioa kontuan hartu gabe. Zehazki, 2019an Gaztelekuak izan zituen 5424 bisitetatik 3304 mutilak izan ziren, hau da, % 61.

Hala ere, hezkuntza-taldeak zuzendutako edo proposatutako jardueretan, neskek gehiago parte hartzen dute ia guztietan, mutilen ehunekoa gaindituz.

Deigarria da alabaina, Gazteria Sailak kirolaren inguruan antolatzen dituen jardueretan mutilak gehiago argia direla, % 70etik gora. Bereziki nabarmena da Skate Eguneko ezberdintasuna, 29 parte-hartzaileetatik bakarria baitzen emakumea.

## HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

### GAZTERIA

- > Datuak sexuaren eta adinaren arabera bereiztea.
- > Nesken parte-hartzea sustatzea proiektuetan.
- > Nesken parte-hartzea sustatzea kirolaren inguruko jardueretan, batez ere skate-kirolari dagokionez.

## HEZKUNTZA

Musika Kontserbatorioan, matrikulatutako ikasleak erabat proportzionalak izan arren, aldea dago ikastaroen artean. Lehenengo mailan, matrikulatutako ikasleen ia % 70 emakumeak ziren 2019an; seigarren mailan, aldiz, joera hori alderantzizkoa da, eta ia % 60 gizonak dira. Gauza bera gertatzen da irakaskuntza ez-arautuan, non emakumeen kopurua nabarmen jaisten den finkatze-mailaren hastapen-mailatik aurrera, gizonak baino modu nabarmenagoan. Alde horretatik, interesgarria litzateke aztertzea zergatik jaisten den emakumeen parte-hartzea.

Gainera, bai irakaskuntza arautuan zein ez-arautuan, ikus daiteke aldeak daudela instrumentuak aukeratzerakoan. Ikaslea kopuru antzekoa bada emakume eta gizonen artean, instrumentuen banaketa oso desberdina da. Ez dago neskarik tronboia, tronpa, tronpeta, fagota edo perkusioa jotzen duenik. Ezta zeharkako txirula, biola eta biolontxeloak jotzen duten mutilak ere; gutxiago dira pianoan edo biolinean ere.

## HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

### HEZKUNTZA

- > Datuak sexuaren eta adinaren arabera bereiztea.
- > Instrumentuen hautaketa eta emakumeen jarraikortasunaren inguruko azterketa xeheagoak egitea.



## 4.2.2.- KULTURA ETA KIROLA

### KULTURA

Emakumeek kultura gehiago kontsumitzen dutela ondoriozta dezakegu Kultura arloko datuak aztertuta.

Emakumeek liburutegia gehiago erabiltzen dute, emakume bazkideak gehiengo dira, eta liburuen maileguan ere gehiengo dira. Nabarmenezkoa da liburutegiak proposatutako jarduera edo tailerretan parte hartzen duten gehienak emakumeak direla, % 80ra iritsita. Gizon gehiago baino ez ditugu aurkitzen interneteko erabiltzaile gisa. Gainera, emakumeak ere gehiago dira hiriko museoak bisitatuz (Menchu Gal Museoan izan ezik) edo marrazketa, pintura eta zeramika akademian parte hartuz.

Erakusketen komisarioak edo egileak ere 2019. urtean gehiago izan dira emakumeak. Liburutegiko sare sozialetan ere emakumeak dira nagusi.

Artistentzako laguntzetan eta diru-laguntzetan, 2019an parekotasun handia egon zen, bestalde, emakumeak gehiago ziren auzo sortzailearen proiektuan.

HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK	
<b>KULTURA</b>	> Emakume artisten ikusgarritasuna bultzatzea: emakume artisten erakusketak bultzatzen jarraitzea.

### KIROLA

Eskola-kirolean eta kiroldegiak eskaintzen dituen igeriketa ikastaroetan, gehienak mutilak dira. Arrakala bereziki nabarmena da eskola-kirolean ( % 77,9). Eskola-kiroleko programa dinamizatzeko kontratatzen diren pertsonen artean, Solas Jolas programan ez bezala, gehiago dira gizonak.

Helduei dagokienez, emakume bazkide-kopurua txikiagoa da 0tik 65era adin tartean. Hortik aurrera joera aldatzen da eta azken adin-tarteetan emakume bazkide gehiago izatera igarotzen dira. Bereziki nabarmena da 35 eta 44 urte bitarteko adin-tarteetan eta 45 eta 54 urte bitartekoen arteko aldea.

Emakumeek gehiago parte hartzen dute zuzendutako jardueretan, hala nola eskainitako ikastaroetan.

HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK	
<b>KIROLA</b>	> Nesken parte-hartzea sustatzea kirolean: <ul style="list-style-type: none"><li>&gt; Neskek eskola-kirolean duten parte-hartze txikia aztertzea.</li><li>&gt; Aita-amak kontzientziatzea kirolak neskengan ere duen garrantziaz.</li><li>&gt; Erreferentziazko emakume kirolarien kanpaina.</li><li>&gt; Neskek hiriko klubetan parte har dezaten bultzatzeko programak.</li></ul> > Emakumeek kirolean parte har dezaten bultzatzea: <ul style="list-style-type: none"><li>&gt; Kiroldegian emakume bazkideak gutxiago izatearen zergatia aztertzea.</li><li>&gt; Kontziliazioa erraztuko duten ordutegiak eskaintzea.</li><li>&gt; Kontziliazioa erraztuko duten espazioak eskaintzea, haurtxokoak kiroldegietan bertan.</li><li>&gt; Hiriko klubekin hastapen-espazioak trazatu.</li><li>&gt; Kirolean erreferenteak diren emakumeen kanpainak.</li></ul>

## 4.2.3.- INFORMAZIOAREN GIZARTEA, HERRITARREN PARTE-HARTZE ETA AUZOETARAKO ARLOA

Udal artxiboak eskainitako datuetan, ikertzaile gehienak gizonezkoak dira, ia % 88 artxibo historikoan. Deigarria da, emakume unibertsitarioen eta ikertzaileen kopuruak gora egin duenean aldea hain handia izatea. Baliabidea erabiltzen duten pertsonen adina zein den ez dakigunez, ezin ditugu ondorio nabarmenak atera, baina arrakala hori adin tarte guztietan mantentzen den ikustea interesgarria litzateke.

Administrazio-artxiboan ere, kontsulta partikularrak gizonak egiten dituzte gehienbat.

Emakumeak gehiago joan dira kontsumitzailearen bulegora. Eta parte-hartzaileagoak izan dira, halaber, herritarren iritzia jaso diren prozesuetan gizonak baino gehiago parte hartu dute eta. Baita kexen eta iradokizunen abisuen atalean ere.

Datu horiekin agerian geratzen da emakumeek gaztetatik beren ahotsa jasotzen den prozesuetan ekarpenak egiteko gogoia dutela. Hala eta guztiz ere, kontutan hartu behar da auzo-elkarteetan presidenteak gizonak direla gehienbat. Hiriko 17 auzo-elkarteetatik bostetan baino ez dira emakumeak buru.

Horrenbestez, ondoriozta dezakegu gizonak botere-postuetan jarraitzen dutela, eta emakumeek parte hartzen dutela ahotsa ematen zaien guneetan, baina modu diskretuagoan eta inplikazio gutxiagorekin.

Emakumeek gehiago erabili dute Herritarrei Arreta Emateko Zerbitzua (HAZ). 2019an gehiago izan ziren Irun Txartela izapidetu zuten emakumeak ere.

Erregistro-eskaeretan ordezkari gisa jardun duten emakumeen kopurua handia da. Emakumeek ia bikoiztu egiten dituzte gizonak, beste pertsona fisiko batzuk ordezkatzuz; gizonak, berriz, gehiago ordezkatzun dituzte pertsona juridikoak. Datu horiekin ondoriozta dezakegu emakumeak direla beste pertsona batzuentzako laguntzak eta bestelako baliabideak izapidetzen dituztenak, eta gizonak, berriz, enpresa edo elkarteetarako ordezkariak dira.

HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK	
<b>HERRITARREI ARRETA ZERBITZUA</b>	> Izapideak telematikoki egiteko erraztasunak jartzea.
<b>PARTEA-HARZTEA ETA GARDENTASUNA</b>	> Azterlan kualitatiboa, emakumezko ikertzaileen kontsulta urriak ulertzeko. > Emakumeek elkarteetan parte har dezaten bultzatzea. > Emakumeen lidergoa bultzatzea hainbat udal-eremutan. > Kontziliaziorako baliabideak sortzea. Formula berriak, hala nola bileren ordutegiak aztertzea eta adingabeak zaintzeko zerbitzua eskaintzea.

## 4.2.4.- EUSKARA

Euskararen arloan, Solas-Jolas programan begirale gisa lan egiten duten emakumeak askoz gehaigo dira. Haurren parte-hartzea, bestalde, parekidea da adin guztietan.

Udal euskaltegian ikasle gehienak emakumeak dira. Eta, oro har, arloak proposatutako jarduera guztietan, emakumeen parte-hartzea handiagoa izan da, bai ikastetxeetan eta baita tailerretan ere.

Euskara ikasteko beka jaso duten emakumeak ere gehiengoa dira. Eta nabarmentzekoa da emakumeek parte-hartze handia izan dutela gurasoentzako tailerretan, parte-hartzaileen % 70 emakumeak izan baitira.

HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK	
<b>NORMALIZAZIOA</b>	> Gizonen hezkuntza-eragile gisa parte har dezaten bultzatzea. >Gurasoen artean tailerretan eta programan parte hartzeko aitak kontzientziatzeko kanpaina.
<b>EUSKALTEGIA</b>	> Euskaltegira sartzen diren emakumeen beharrak aztertzea.

## 4.2.5.- UDALTZAINGOA ETA BIZIKIDETZA ARLOA

Irungo Udaltzaingoak emandako datuetan, arau-haustek nagusiki gizonen egiten dituzte, kasu guztietan % 63tik gora.

Gizonen espazio publikoa eta ibilgailua emakumeek baino gehiago erabiltzen dituztela ondoriozta daiteke datu hauekin.

Arlo honetan ere ez dago sexuaren arabera bereizitako daturik bide-hezkuntzako programetan, nahiz eta programa honetako parte-hartzea ez da aukeratu, izan ere ikastetxeko hurrek parte hartzen dute, jarduera beraiek aukeratu gabe.

Adinekoentzako zentroetan emandako hitzaldi edo tailerretan, guztietan, emakumeak izan dira nagusi.

Azpimarratzekoa da emakumeek parte hartu dutela erditzea prestatzeko eskoletan, gizonen presentzia oso txikia izan baita, % 7,5 baino ez.

HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK	
<b>TRAFIKOA ETA HIRITAR ELKARBIZITZA</b>	> Datuak sexuaren eta adinaren arabera bereiztea.
<b>BIDE HEZIKETA</b>	> Datuak sexuaren eta adinaren arabera bereiztea. > Emakumeek bide-hezkuntzan parte har dezaten bultzatzea eta bizikleta bidezko mugikortasuna bultzatzea.

## 4.2.6.- HIRI-BULTZADA, EKONOMIA ETA OGASUN ARLOA

KBIZIAk bultzatutako proiektuei buruzko datuetan hainbat ondorio atera ditugu. Enpresa sortu berrien eta establezimendu ireki berrien alokairuei zuzendutako programan, emandako diru-laguntzak modu ekitatiboan ematen dira. Hala ere, establezimenduak birgaitzeari dagokionez, eta, batez ere, Irunen 5 urtetik gorako antzintasuna duten merkataritza-establezimenduetan, emakumeek bakarrik eskatu dute diru-laguntza lerro hori.

Irun Ekintzan programaren barruan, Irunen abian jarritako ekintzailtzako enpresa-ekimen berritzaileak, 2019an E-Berritzaile programaren barruan onartu zirenak, bederatzi izan ziren. Horietatik sei emakumeek jarri zituzten, hau da, % 66,7.

Halaber, Irunen, E-Gaztea programaren barruan, 30 urtetik beherako pertsonak abian jarritako ekintzailtzako enpresa-ekimenak lau izan ziren, bi emakumeek zuzenduta eta beste bi gizonak zuzenduta.

Beraz, E-Gaztea programan datuak parekoak dira, eta E-Berritzailean, berriz, onuradunen % 67 emakumeak izan dira.

Ogasun eta Ekonomia Sailak sustatutako kontratazio-laguntzetan, gehienak emakumeak izan dira esku-hartze ildo horren onuradunak.

Kontratatzeko laguntzetan, kontratatutako 16 pertsonetatik 9 emakumeak izan ziren. Enplegua sustatzeko kontratazioetan, berriz, 44 kontratutik 27 emakumeentzako izan dira. Kontratu gehienak, sei hilabetekoak, 55 urtetik gorakoei eta DSBE jasotzen dutenei zuzenduta daude nagusiki, baita 35 urtetik beherako gazteei, langabezian sei hilabete baino gehiago daramaten 45 urtetik gorakoei, desgaitasunen bat duten pertsonak, familia-kargak dituzten emakumeei eta abarri ere.

2019an 8 pertsona kontratatu ziren laneratzeko zailtasunak zituzten pertsonak kontratatze laguntzari esker, lau emakume eta lau gizon.

Hala ere, 30 urtetik beherako pertsonen kontratazioan, gizonak gehiago izan dira; zehazki, kontratatutako 17 pertsonetatik 10 gizonak izan dira. Gauza bera gertatzen da Lanbideren kontratazio-laguntzetan, laguntza horri esker kontratatutako bederatzi pertsonetatik sei gizonezkoak izan baitziren.

### HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

<b>OGASUNA</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>&gt; 30 urtetik beherako emakumeen artean emakumeen enplegua sustatzea</li><li>&gt; Enplegua sustatzeko programan sei hilabetez parte hartzen duten pertsonen jarraipena egitea.</li><li>&gt; Irungo emakumeen lan-egoera genero-ikuspegiarekin aztertzea.</li></ul>
----------------	--

## 4.3.- HOBEKUNTZA PROPOSAMENEN LABURPENA

### PROPOSAMEN OROKORRAK

1.- Datuak sexuaren arabera bereizi eta beren baliabideen kudeaketarekin lotutako genero-adierazleak sartu beharra dago, sexuaren arabera bereizkeriarik dagoen edo ez aztertzeke informazio erabilgarria izateko. Informazio hori beharrezko oinarria izango da, desberdintasunak antzemanaz gero, baliabideak kudeatu eta politikak birbideratzeko.

2.- Udal-proposamenen eremuan, sarbidearekin, lan-baldintzekin, sustapenarekin eta abarrekin lotutako informazio eta hedapen-ekintzen edukiak eta hizkuntza, idatzia zein bisuala, berrikustea.

3.- Erakunde laguntzaileekin edo baliabideen kudeaketarekin lotutako funtzioak egiteko kontratatutako agenteekin ere lan egin behar da emakumeen parte-hartzea bultzatzeko; ildo horretan, baldintza bereziak ezarri behar dira erakunde horiekin egiten diren kontratuak/hitzarmenak gauzatzeari dagokionez, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta partaidetza bultzatzeko.

# ARLO, DEPARTAMENTU, ZERBITZU ETA UDAL PROGRAMEN ARABERAKO PROPOSAMENAK

GIZARTE ONGIZATEA, HEZKUNTZA ETA GAZTERIA ARLOA			
<b>ONGIZATE ARLOA</b>	<b>ADINEKO PERTSONAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>&gt; Baliabideetan emakumeen parte-hartzea bultzatzen jarraitzea eta hiriko beste auzo batzuetan eredia erreproduzitzeko aukera planteatzea.</li> <li>&gt; Zerbitzua ezagutzen ez duten emakumeen parte-hartzea bultzatzea.</li> <li>&gt; Bizitoki-baliabideen azterketa: egoitza-etxebizitzetan eta tutoretzapeko apartamentuetan gehienbat gizonak direlako.</li> <li>&gt; Zerbitzuarekin lankidetzan diharduten erakunde guztiei genero-ikuspegia duten datuak bereizteko eskatzea.</li> </ul>	
	<b>GARAPENE RAKO LANKIDETZA, GIZA ESKUBIDEAK, BALIOAK ETA BERDINTASUNA</b>	<b>BERDINTASUNA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>&gt; Baliabideetan emakumeen parte-hartzea bultzatzen jarraitzea, eta adinekoentzako gizarte-zentroen harrera ona ikusita, berdintasunaren aldeko eskaintza hiriko auzoetara eramatea.</li> <li>&gt; Zerbitzua ezagutzen ez duten emakumeen parte-hartzea bultzatzea.</li> <li>&gt; Emakume gazteen parte-hartzea sustatzea tailerretan.</li> <li>&gt; Zerbitzua espazio informaletara hurbiltzea.</li> </ul>
	<b>ESKU- HARTZE KOMUNITARIOA</b>	<b>ADIKZIOEN PREBENTZIOA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>&gt; Genero-ikuspegia sartzea esku-hartzeetan eta ondorioetan.</li> <li>&gt; Sexuaren arabera bereizita parte hartzen duten pertsonen datuak biltzea.</li> </ul>
		<b>HAURTZAR OA ETA FAMILIA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>&gt; Banakako hezkuntza-proiektuetan dagoen parte-hartze desberdina aztertzea.</li> <li>&gt; Kanpaina, zaintzak banatzeko beharraren inguruko kontzientziazioa bultzatzea.</li> <li>&gt; Gizonezkoen artean guraso taldeetan parte hartzea bultzatzea.</li> </ul>
		<b>GIZARTER ATZEAREN SUSTAPENA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>&gt; Zubia Gizarteratze Zentroa genero-ikuspegitik nola erabiltzen den aztertzea.</li> </ul>
	<b>LEHENENGO MAILAKO ARRETA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>&gt; Datuak sexuaren arabera segregatu.</li> <li>&gt; Genero-adierazleak txertatzea laguntzen eskatzaileen jarraipenean.</li> </ul>	
	<b>HEZKUNTZA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>&gt; Datuak sexuaren eta adinaren arabera bereiztea.</li> </ul>	

	> Instrumentuen hautaketa eta emakumeen jarraikortasunaren inguruko azterketa xeheagoak egitea.
<b>GAZTERIA</b>	> Datuak sexuaren eta adinaren arabera bereiztea. > Nesken parte-hartzea sustatzea proiektuetan. > Nesken parte-hartzea sustatzea kirolaren inguruko jardueretan, batez ere skate-kirolari dagokionez.

## KULTURA ETA KIROLA

<b>KULTURA</b>	> Emakume artisten ikusgarritasuna bultzatzea: emakume artisten erakusketak bultzatzen jarraitzea.
<b>KIROLA</b>	> Nesken parte-hartzea sustatzea kirolean: <ul style="list-style-type: none"> <li>&gt; Neskek eskola-kirolean duten parte-hartze txikia aztertzea.</li> <li>&gt; Aita-amak kontzientziaztea kirolak neskeengan ere duen garrantziaz.</li> <li>&gt; Erreferentziazko emakume kirolarien kanpaina.</li> <li>&gt; Neskek hiriko klubetan parte har dezaten bultzatzeko programak.</li> </ul> > Emakumeek kirolean parte har dezaten bultzatzea: <ul style="list-style-type: none"> <li>&gt; Kiroldegian emakume bazkideak gutxiago izatearen zergatia aztertzea.</li> <li>&gt; Kontziliazioa erraztuko duten ordutegiak eskaintzea.</li> <li>&gt; Kontziliazioa erraztuko duten espazioak eskaintzea, haurtxokoak kiroldegietan bertan.</li> <li>&gt; Hiriko klubekin hastapen-espazioak trazatu.</li> <li>&gt; Kirolean erreferenteak diren emakumeen kanpainak.</li> </ul>

## INFORMAZIOAREN GIZARTEA, HERRITARREN PARTE-HARTZE ETA AUZOETARAKO ARLOA

<b>HERRITARREI ARRETA ZERBITZUA</b>	> Izapideak telematikoki egiteko erraztasunak jartzea.
<b>PARTEA-HARTZE ETA GARDENTASUNA</b>	> Azterlan kualitatiboa, emakumezko ikertzaileen kontsulta urriak ulertzeko. > Emakumeek elkarrekin parte har dezaten bultzatzea. > Emakumeen lidergoa bultzatzea hainbat udal-eremutan. > Kontziliaziorako baliabideak sortzea. Formula berriak, hala nola bileren ordutegiak aztertzea eta adingabeak zaintzeko zerbitzua eskaintzea.

## EUSKARA

<b>NORMALIZAZIOA</b>	> Gizonek hezkuntza-eragile gisa parte har dezaten bultzatzea.
----------------------	--



	>Gurasoen artean tailerretan eta programan parte hartzeko aitak kontzientziatzeko kanpaina.
<b>EUSKALTEGIA</b>	> Euskaltegira sartzen diren emakumeen beharrak aztertzea.

### UDALTZAINGOA ETA BIZIKIDETZA ARLOA

<b>TRAFIKOA ETA HIRITAR ELKARBIZITZA</b>	> Datuak sexuaren eta adinaren arabera bereiztea.
<b>BIDE HEZIKETA</b>	> Datuak sexuaren eta adinaren arabera bereiztea. > Emakumeek bide-hezkuntzan parte har dezaten bultzatzea eta bizikleta bidezko mugikortasuna bultzatzea.

### HIRI-BULTZADA, EKONOMIA ETA OGASUN ARLOA

<b>OGASUNA</b>	> 30 urtetik beherako emakumeen artean emakumeen enplegua sustatzea > Enplegua sustatzeko programan sei hilabetez parte hartzen duten pertsonen jarraipena egitea. > Irungo emakumeen lan-egoera genero-ikuspegiarekin aztertzea.
----------------	---